

# Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena Revisión del Plan Territorial Parcial del área funcional de Álava Central

## ARAUDIA

*Behin-behineko onarpena / Aprobación provisional  
2024ko uztaila / julio 2024*

## Aurkibidea

<b>I. Kapitulumua. Xedea eta izaera .....</b>	<b>4</b>
1. artikulua Xedea .....	4
2. artikulua Aplikazio-esparrua .....	4
3. artikulua Izaera .....	4
4. artikulua Indarraldia eta etenaldia .....	4
5. artikulua Planaren denbora horizontea aldatzea eta berraztertzea .....	4
6. artikulua Eduki dokumentala .....	5
7. artikulua Interpretazioa .....	6
8. artikulua Hirigintza-plangintzarekiko eta lurralde-plangintza sektorialarekiko lotura .....	6
9. artikulua Planak, programak eta proiektuak egokitzea .....	7
10. artikulua Egikaritze-Programaren jarduera-oinarriak .....	7
<b>II. Kapitulumua. Antolamenduko eta espazioaren erabilerako arauak .....</b>	<b>7</b>
11. artikulua Inguru fisikoaren antolamendua .....	7
12. artikulua Azpiegitura berdea eta Ekosistemen Zerbitzuak .....	12
13. artikulua Araba Erdialdeko eremu funtzionalako hiri-sistema .....	15
14. artikulua Burua: Vitoria-Gasteiz .....	16
15. artikulua Araba Erdialdeko Azpiburuak: Santikurutze Kanpezu, Ribabellosa, Murgia, Agurain eta Otxandio .....	17
16. artikulua Egitura-guneak: Maeztu, Peñacerrada-Urizaharra, Espejo, Langraiz Oka, Legutio, Gopegi, Alegria-Dulantzi, Araia eta Izarra .....	19
17. artikulua Arabako herrixkak .....	20
18. artikulua Lautadako Eraldaketa Ardatza .....	20
19. artikulua Hiri-berroneratzea .....	21
20. artikulua Hiri-hazkundea .....	22
21. artikulua Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua .....	29
22. artikulua Bizitegi-kuantifikazioa .....	30
23. artikulua Plangintzak bateragarri egitea .....	30
24. artikulua Ura .....	31
25. artikulua Energia .....	32
26. artikulua Ekonomia zirkularra: hondakinen kudeaketa, ekipamenduak eta azpiegiturak .....	38
27. artikulua Ekonomia zirkularra: lurtzorua baliabide bezala .....	38
28. artikulua Zeharkako gaiak eta hiri-eredua .....	39
LPPk proposatutako hiri-eredua honako hauetan oinarritzen da: .....	39
<b>III. Kapitulumua Gomendatzeko artikulua .....</b>	<b>39</b>
29. artikulua Landa-habitata .....	39
31. artikulua Ondare kulturala .....	43
32. artikulua Ondare naturala .....	44
33. artikulua Baliabide turistikoak .....	44
34. artikulua Mugikortasun multimodala .....	45
35. artikulua Oinezkoen eta bizikleta bidezko mugikortasuna .....	46
36. artikulua Bide-mugikortasuna .....	48
37. artikulua Trenbide- eta aireportu-mugikortasuna eta logistika .....	49
38. artikulua Irisgarritasun unibertsala .....	50
39. artikulua Genero-ikuspegia .....	51
40. artikulua Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea .....	51
41. artikulua Osasuna .....	52
42. artikulua Euskara .....	53
43. artikulua Lurralde-interrelazioa .....	53
44. artikulua Parte-hartzea .....	54

## Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

45. artikulua	LPPren jarraipen-memoria .....	55
46. artikulua	Lurralde-plangintza partzialaren eta sektorialaren koordinazioa .....	55
47. artikulua	Arabako Haranen eskualdea .....	55
48. artikulua	Arabako Mendialdeko eskualdea .....	56

#### I ERANSKINA. Administrazio Zentralaren txostenen arabera sartutako araudi sektoriala ..... 58

Interes orokorreko trenbide-sarea .....	59
Defentsa-instalazioak .....	61
Abiazio zibila	62
Urak	69
Telekomunikazioak .....	72

#### II. ERANSKINA: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANA INDARREAN SARTU ARTE LURZORU URBANIZAEZINEAN ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEKO ETA KOKATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK. 73

## ANTOLAMENDU ARAUAK

### I. Kapituluak. Xedea eta izaera

#### 1. artikulua Xedea

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala (aurrerantzean, LPP) Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera egin eta idatzi da, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (aurrerantzean, LAG) garatu eta aplikatzeko. Lurralde-antolamenduko tresna da Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren lurralde-egitura definitzen duena, eta hirigintza-planek zein lurralde-plan sektorialek (aurrerantzean, LPS) eta eremu funtzionalen lurralde-eragina duten jarduketek bete beharko dute.

#### 2. artikulua Aplikazio-esparrua

LPPren aplikazio-eremuak udalerrri eta eremu hauek hartzen ditu: Agurain/Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Añana, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Elburgo/Burgelu, Erriberagoitia/Ribera Alta, Harana/Valle de Arana, Iruña de Oca/Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Lagran, Lantaron, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Baja/Erriberabeitia, San Millán/Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovía/Gaubea, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana, Zigoitia y Zuia, eta gainera barne hartzen ditu Badaia eta Entziako Partzuergoak.

#### 3. artikulua Izaera

LPP honek bereizketa bat ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 8. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoaren antzekoa: espazioa antolatzeke eta erabiltzeko artikulua eta gomendiozko artikulua.

1. Espazioa antolatzeke eta erabiltzeko artikulua lotesleak II. kapitulan jasotakoak dira, eta irizpide onargarri batzuk ezartzeko, baztertzeko edo txandakatzeko irizpideak dira.
2. Artikulu gomendagarriak III. kapitulan jasotakoak dira. Administrazio eskuduna bere edukitik aldentzen denean, berariaz justifikatu beharko du hartutako erabakia, baita bere helburuekin bateragarria dela ere.

#### 4. artikulua Indarraldia eta etenaldia

1. LPP honek indarraldi mugagabea du, aldi baterako programazioari eta izan ditzakeen aldaketa edo berrikuspeni kalterik egin gabe.
2. Lau urtean behin, Eusko Jaurlaritzan lurralde-antolamenduaren arloan eskumena duen sailak memoria bat egingo du. Memoria horretan, zehaztapenen betetze-maila azalduko da, bai eta, hala badagokio, identifikatutako desorekak arintzeko edo erreformatzeko beharrezkoak diren proposamenak ere. Memoria hau Arabako eta Bizkaiako Foru Aldundiei, Eremu Funtzionalako Udalei eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaie, jakinaren gainean egon dadin.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak LPPren indarraldia etetea erabaki ahal izango du, berrikusi ahal izateko.

#### 5. artikulua Planaren denbora horizontea aldatzea eta berraztertzea

**-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-**

1. LPP honen edukia aldatu ahal izango da, hura berrikusita edo hura osatzen duten elementuren bat edo batzuk aldatuta.
2. Aldaketatzat hartzen da planaren dokumentazioan edo zehaztapenetan egindako aldaketa edo gehitze oro, baldin eta aldaketa edo gehitze horrek ez badakar planaren berraztertze orokorra, proposamen osoari eragiten ez badio, kasu zehatz eta bakanetan izan ezik.
3. Aldaketak interes orokorreko arrazoietan oinarritu beharko dira, eta horien edukia eta irismena zehatz-mehatz deskribatu beharko dira, bai eta aldaketa horiek berariaz justifikatu ere. Ildo horretan, beharrezko xehetasunez ebaluatuko dira Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPParen aurreikuspenetan izango dituen ondorioak, honako hauei dagokienez: ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea, biztanleria, enplegua, komunitatearen ekipamendua, azpiegiturak, mugikortasuna eta paisaia.
4. Aldaketa guztiek zerikusia izango dute aldaketa horiek justifikatzen dituen arrazoiarekin, eta espedientean ezingo dira sartu arrazoi horrekin lotuta ez dauden planaren aldaketak, ez eta egindako deskribapen eta justifikazioetan berariaz aipatzen ez direnak ere.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, LPParen aldaketak, baldin eta berrikuspen orokorra edo tresna horren funtsezko aldaketa ez badakarte, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitako prozeduraren bidez egingo dira. Dekretu horrek lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen ditu.
6. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala berrikusteko har daitezkeen ekimenak alde batera utzita, bai legezkoasun-arrazoiengatik – legealdaketak, lurralde-antolamendua eta abar –, bai egokitasun- eta/edo beharrian-arrazoiengatik, berrikuspen hori egingo da honako kasu hauetan:
  - a. Baldin eta eremu funtzionalako biztanleriak % 6an gainditzen baditu plan honetan aurreikusitako gehieneko aurreikuspenak.
  - b. Planifikatutako etxebizitza berrien % 75 eraikitzeke lizentziak ematen diren unean.
  - c. Jarduera ekonomiko berriak ezartzeko aurreikusitako lurzorua % 75 baino gehiago okupatzen denean.
  - d. Oro har, gerora sortutako zirkunstantzietan LPPn biztanleriaren oinarritzko magnitudeei, enplegu-dinamikari edo etxebizitza-merkatuari buruz hartutako hipotesiak aldatzen dituztenean, ezarritako antolamendu-irizpide orokorrak aldatzera behartzen dutenean.
  - e. LAGak aldatzeak edo berrikusteak Lurralde Eredua eraldatzea dakarrenean eta Eremu Funtzionalari zuzenean eragiten dionean.
  - f. Nolanahi ere, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren LPParen indarraldiko zortzi urteetan (aurreko 4. artikulua 2. apartatua aipatzen den bigarren jarraipen-memorian) berrikuspena egiteko aukera egiaztatuko da.
7. LPParen berrikuspena Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako prozedurari lotu beharko zaio, hura formulatu eta onartzeko, bai eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuari ere, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoari.

6. artikulua      Eduki dokumentala

1. LPP honek hurrengo dokumentuak ditu:
  - a. Memoria eta informazio planoak
  - b. Antolamendu planoak
    - i. ORD 0 Lurralde-erlazioa
    - ii. ORD 1.1 Antolamendu kategoriak
    - iii. ORD 1.2 Baldintzatzaile gainjarriak. Azpiegitura berdea
    - iv. ORD 1.3 Baldintzatzaile gainjarriak. Arriskuak
    - v. ORD 2 Landa-habitata
    - vi. ORD 3 Hiri-habitata
    - vii. ORD 4 Ondarea, paisaia eta baliabide turistikoak
    - viii. ORD 5 Baliabideen kudeaketa iraunkorra
    - ix. ORD 6 Mugikortasuna eta logistika
    - x. ORD 7 Antolamenduaren sintesia
  - c. Araudia
  - d. Hiri-plangintzari eragindako afekzioak
  - e. Gauzatze programa eta azterketa ekonomiko-finantzariora
  - f. Ingurumen-azterketa estrategikoa
2. Plana osatzeko, Aldez Aurreko Azterlanak eta Paisaiaren Katalogoa egin dira, diagnostikoak eta horiek egiteko euskarri-elementuak egiteko.
3. Artikulu honetan zerrendatutako dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzan lurralde-antolamenduaren eskumena duen zuzendaritzaren webgunean kontsulta daiteke.

## 7. artikulua Interpretazioa

1. Kontraesanik badago, Antolamendu Arauen eta Antolamendu Planoen zehaztapenak gailentzen dira Plana osatzen duten gainerako dokumentuetan jasotakoaren gainetik. Antolamendu Arauen eta Antolamendu Planoen artean kontraesanik badago, lehenengoak nagusituko dira..
2. Lurralde Plan Partzialesan jasotako xehetasunak interpretatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokio (aurrerantzean, EAELAB), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 28. artikuluan eta LAGen 37. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

## 8. artikulua Hirigintza-plangintzarekiko eta lurralde-plangintza sektorialarekiko lotura

1. Araba Erdialdeko LPPak bere horretan lotzen ditu, 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Lurzoruaren Legean araututako hirigintza-planak, eta II. eranskinean zehazten ditu.
2. Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 17. Artikuluen arabera, LPPak arau-hierarkia handiagoa du eta EAeko Administrazio Autonomikoaren eta Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien organo eskudunek egiten eta onartzen dituzten LPSak lotzen ditu.
3. LPPa Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalan eragina duten LPSetako zehaztapenetara igorriko da, horien eskumeneko gaitetan, betiere zehaztapen horiek LAGen eta LPP

honen lurralde-ereduari erantzuten badiote. Hori guztia LAAen 37. artikuluan eta TALren 17. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz.

4. LPPak gomendio-irizpideak ezartzen ditu udalez gaindiko eta sektoreko beste plangintza-tresna batzuetarako.

## 9. artikulua Planak, programak eta proiektuak egokitzea

1. Administrazio eskudunek LPPko zehaztapan lotesleak eragina duten plan, programa eta proiektuetan sartzeko beharrezkoak diren prozedurak abiaraziko dituzte.
2. Administrazio publiko eskudunak egiaztatu beharko du sustatzen dituen lurralde-plan, -programa eta -proiektuen memorian justifikatzen dela Araba Erdialdeko LPPko zehaztapanetara egokitzea.
3. Era berean, administrazio publiko eskudunek dagokion dokumentuaren memorian jaso beharko dute lurralde- edo hirigintza-izaera dutenean:
  - a. LPPa nahitaez kontuan hartzea, onartu, aldatu, garatu edo berrikusi beharreko hirigintza-plangintza duen udalerriri dagokionez, Plan Orokorrari edo Udal Arau Subsidiarioei eskaintzen dien eragina eta aukerak kontuan hartuta, bai eta hirigintza-estrategia lurralde-ikuspegitik osatzeko ere.
  - b. Udalerrri mugakideetan indarrean dagoen plangintzaren egoera, informazio gisa jaso, kasu bakoitzean plangintza berriaren eta proposamenen artean sor daitezkeen desadostasun-arazoak, antolamendua bateragarri egiteko hartutako irtenbideak eta, hala badagokio, horretarako egindako administrazioen arteko komunikazioak adierazita.

## 10. artikulua Egikaritze-Programaren jarduera-oinarriak

LPPren Gauzatze Programa honako jarduera-oinarri hauen arabera garatuko da:

1. Gauzatze Programaren adostasunaren beharra
2. Jarduketak gauzatzeari lehentasuna ematea
3. Dauden erakundeez baliatzea planteatutako eragiketak garatzeko

## II. Kapituluak. Antolamenduko eta espazioaren erabilerako arauak

### 11. artikulua Inguru fisikoaren antolamendua

1. Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak.
  - a. Antolamendu-kategoriak eremu homogeneoetan zonifikatzen dute lurraldea, LAGen 3.1.a artikuluan ezarritakoaren arabera.
  - b. Sei antolamendu-kategoria ezarri dira Araba Erdialdeko lurzoru urbanizaezinerako:
    - i. Babes berezia. Honako lurzoru hauek barne hartzen ditu:
      1. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planek (aurrerantzean, NBAP) Babes Bereziko Eremu gisa ezarritako mugaketak
      2. Faunaren Interes Bereziko Eremuak, onartutako kudeaketa-planen arabera
      3. Interes Geologikoko Lekuen azaleratzeak

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

4. Arabako Erdialdeko Paisaiaren Katalogoko Paisaiaren Kalitatearen Helburuei buruzko ORD.4 Ondarea, paisaia eta baliabide turistikoak antolamendu-planoan jasotako mugaketak, honako hauei lotuak:
    - a. Espozizio handiko enklabeen babesa sustatzea
    - b. Funts eszenikoetako enklabeen babesa sustatzea
    - c. Paisaia zuhaitz-masa berezien babesa sustatzea
    - d. Paisaia naturalaren babesa sustatzea (harritsua eta higagarria)
    - e. Haitz eta muinoen ikusizko babesa eta kontserbazioa sustatzea
  5. Hirigintza-plangintzak intereseko gisa karakterizatutako edo kontserbazio-egoera nabarmenean dauden beste elementu batzuk kategorizatu ahal izango ditu, LAGen Antolamendu Arauen II. eranskineko 2.a.1 ataleko deskribapenarekin bat datozenak.
- ii. Ingurumenaren hobekuntza.
1. Honako lurzorua hauek barne hartzen ditu:
    - a. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritako eta LPP honek birmugatutako Ingurumen Hobekuntzaren mugaketa, ezaugarri ezin hobeak lortzeko ingurumena hobetu beharko duten lurzorua degradatuentzat. Hirigintza-plangintzak, modu arrazoituan eta aurreikuspen zehatzik ezean, lurzorua horiek kategorizatu ahal izango dituzte.
    - b. Babes bereziki jo ez diren lurzoruetan, informazio-planoan jasotako mugaketak sartu dira, Araba Erdialdeko Paisaiaren Katalogoko paisaia-kalitatearen helburu hauei buruzkoak:
      - i. Meatze-ustategien, zabortegeien eta degradatutako beste eremu batzuen paisaia-integrazioa sustatzea.
      - ii. Larre eta sastraken paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea ikusmen handiko kokaguneetan.
      - iii. Ikus-irisgarritasun handiko kokaguneetako baso-landaketen paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea.
    - c. IVTHA 05-03 planoan (Arabako Lurralde Historikoko Azpiegitura Berdearen Planaren prozesu ekologikoak) funtsezko espazio ekologikoak indartzeko xede gisa islatutako espazioak.
  2. Eremu funtzional honetako ingurumen-hobekuntza garrantzitsutzat jotzen da, honako hauek kontuan hartuta:



### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- a. Iruña Okako harrobiak: Badaiaiko hegoaldeko hegaleko baso-paisaian ustiatzeari utzi dioten eremuak lehengoraztea eta biodibertsitatea berreskuratzea.
  - b. Laminoriako harrobiak: ustiatzen ari ez diren eremuak pixkanaka lehengoraztea, basoberritzea eta biodibertsitateari laguntzeko elementuak sortzea, hala nola urmaelak eta hezeguneak, eta energia berriztagarrien sorrera sartzea.
  - c. Noryeste baltsa: eremua hobetzea eta energia berriztagarriak sortzea.
  - d. Lasarteko hartxintxarrak: kutsatutako lurzoruen tratamendua fitoerremediazio teknika espezifikoaren bidez, kutsatzaileak termino hidrogeologikoetan hedatzeko baldintzen jarraipena, eta eremuan biodibertsitatea sustatzea, Larragorri parke berrirako proiektuen esparruan.
3. Udal-plangintzak zehaztuko ditu gainerako eremuetako ingurumena hobetzeko baldintzak.
- iii. Basoa. Maila handiagoko kontserbazio-figurarik gabeko baso-lurzoruak sartzen dira, edo NBAPen edo LPParen diagnostikoaren arabera, baso-ekoizpeneko eremu gisa mugatuta daudenak.
  - iv. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala. Bi azpikategoria barne hartzen ditu, Nekazaritza eta Basozaintzako LPStik eratorriak:
    1. Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala: Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak horrela zedarritutakoari dagokio, baina aldaketak sartu ahal izango ditu nekazaritza-administrazioak lorturiko informazio eguneratuago gisa, baldin eta informazio hori behar bezala argitaratuta badago.
    2. Trantsiziozko Landa Paisaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala.
  - v. Mendi Larreak. Gopegin N-622 eta A-3608 errepideetan zehar, eremu funtzionalaren mendebaldeko muturrean eta Quintarrilla/Valleruca, Langraiz Oka, Urrunaga eta Uribarri Ganboako urtegien hegoaldean kokatutako lurzorua eta Izkiko Parke Naturalaren inguruko paisaiak hartzen ditu.
  - vi. Gainazaleko Uren Babesa. Ibaiak eta errekek eta horien babes-zerrendak barne hartzen ditu, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSean definitutakoak, Uraren Euskal Agentziaren (URA) ibaien kartografia eguneratua eta Hezeguneen LPSeke kontsiderazioak kontuan hartuta, bai eta Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSean adierazitako urtegiatarako distantziak ere.
2. Ingurune fisikoko erabilerak bost bloketan sailkatzen dira, LAGetan ezarritakoaren arabera: ingurumen-babesa, aisialdia, lehen mailako baliabideen ustiapena, azpiegiturak eta eraikuntza-erabilerak. LAGak Aplikatzeko Arauen II. Eranskineko 2.c atalean jasotako erabilera horiek garatzea onartu da.

EGONBIDEA. Dokumentu hau Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren espelentzat aplikatzen da. Plan hori, Euzkoaldea eta Hego Euzkoaren 2024ko urteren 7ko Aginduraren bidez onartu zen baten bidez.

Para hacer constar que el presente documento es el Plan Funcional del Territorio Partzial de Araya Central, aprobado por el Consejo de Vigilancia de la Ordenación del Territorio y el Urbanismo de la Comunidad Foral de Aragón, el 7 de octubre de 2024.

EXPEDIENTE 174/2024  
URBANISMO DE SUELO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

LURRALDE PLANATZAREN ETA HIRI-ORDENAZIAREN BARRIKATZAN  
EL DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN TERRITORIAL, URBANISMO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

## Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

3. Ingurune fisikoko erabileren erregulazioa antolamendu-matrize baten bidez adierazten da, LAGen 3. artikuluan adierazitakoaren arabera.

## Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

4. Antolamendu-kategoria bakoitzerako eremuen mugaketa ORD1.1 planoan adierazitakoa izango da, hirigintza-plangintzak horiek modu arrazoituan doitzeko aukera alde batera utzi gabe. Hala ere:
  - a. Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Azaleko Uren Babeseko azpikategorien mugaketa Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSean definitutako zerrenda izango da, artikuluko honen 1.b atalean ezarritakoari jarraiki.
  - b. Beren ingurumen-balioengatik babestutako guneen kategorien mugaketak, espazio horien antolamendu-planetan definitutakoak izango dira. Espazioa, oro har, azpiegitura berdearen barruan gainjarritako baldintzatzaile gisa identifikatuko da.
  - c. Nolanahi ere, kategorien eta erabilera-araubidearen azken mugaketa zehatza hirigintza-plangintzaren berezko zeregina da. Beraz, eskalaren ondoriozko doikuntza arinak egin daitezke, betiere hirigintza-plangintzak justifikatzen baditu.
5. Dokumentu honetan adierazitako antolamendu-kategoriez gain, hirigintza-plangintzak udalerriko sistema orokorrak eta landa-guneak kalifikatuko ditu, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan araututakoaren arabera.
6. Baldintzatzaile gainjarriek mugatu edo baldintzatu egiten dute antolamendu-kategoria bakoitzean ezarritako erabilera-araubidea.
  - a. LPPak honako baldintzatzaile gainjarrien talde eta klaseak identifikatzen ditu:
    - i. Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak:
      1. Akuiferoen urrakortasuna
      2. Arrisku geologikoak
      3. Urak har ditzakeen eremuak klima-aldaketaren testuinguru batean
      4. Sute-arriskuak
      5. Urrakortasun hidrikoa
    - ii. Onura Publikoko Mendiak
    - iii. Azpiegitura berdeari buruzkoak:
      1. Beren ingurune-balioengatik babestutako guneeak
      2. Interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuk
      3. Sare hidrografikoa (sare urdina)
      4. Korridore ekologikoak
7. Baldintzatzaile gainjarriek, gutxienez, artikuluko honetan definitutakoak jaso beharko dituzte, hirigintza-plangintzak beharrezkotzat jotzen dituen baldintzak barne hartzeari kalterik egin gabe, hiriko bero-uharte efektuari dagozkion klima-aldaketari buruzkoak

bezala. Horien mugaketa ORD1.2 eta ORD1.3 planoetan adierazitakoa izango da, eta Hirigintza Plangintzak modu arrazoituan egokitu ahal izango ditu, garatzen diren azterlan berriago edo zehatzagoetan oinarrituta. Hala ere:

- a. Bere ingurumen-balioengatik babestutako espazio bakoitza, oro har, azpiegitura berdearen barruan gainjarritako baldintzatzaile gisa identifikatuko da, bere antolamendu-dokumentuaren mugaketa zehatzarekin.
  - b. Korridore ekologiko baten mugaketa aldatu ahal izango da, baldin eta:
    - i. Lotzen dituen espazioen arteko lotura-funtzioaren mantentzea justifikatu behar da.
    - ii. Ezabatutako edo aldatutako azalera ahalik eta hurbilen dagoen beste batek birjartzea justifikatzen bada, ezabatzen diren ekosistemen zerbitzuak konpentsatzeko.
8. Hirigintza-plangintzak kontuan hartuko ditu LAGen II. eranskineko 1. puntuan jasotako ingurune fisikoko eta jarduerak kontrolatzeko elementu eta prozesuei buruzko irizpideak.
9. Toponimia normalizatua erabiliko da ingurune fisikoko elementuei eta azpiegitura berdeari dagokienez.

## 12. artikulua Azpiegitura berdea eta Ekosistemen Zerbitzuak

1. Araba Erdialdeko azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak honako elementu hauek osatzen dituzte, ORD 1.2 mapan identifikatuak:
  - a. Beren ingurumen baloreengatik babestutako espazioak:
    - i. Gorbeia, Aizkorri-Aratz, Izki eta Valderejoko Parke Naturalak
    - ii. Natura 2000 Sarean integratutako espazioak: Salburuako, Valderejo – Sobron – Artzenako mendilerroako, Gorobel mendilerroako eta Arabako hegoaldeko mendilerroako HBBE, eta Arabako Lautadako Irla-Hariztietako, Caicedo Yuso eta Arreoko lakuako, Añanako Biotopoko, Entziako, Aldaiako Mendietako, Arkamu – Gibillo – Arrastariako, Salburuako, Zadorrako eta Gasteizko mendietako KBE.
  - b. Interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuk: Gasteizko mendietako mendebaldeko zonaldea, Badaia eta Arratoko mendilerroak, Tuyoko mendilerroa, Sobron eta Desfiladero de Angostoko zonaldeak, eta Aizkorri-Aratz eta Entziako mendilerroen mendi-oineko zonaldeak.
  - c. Sare hidrografikoa (sare urdina): Zadorraren sistemako Urtegien, eta Arakil, Baia, Barrundia, Ebro, Ega-Berrón, Ihuda eta Omecillo-Tumecillo ibaien KBEak.
  - d. Korridore ekologikoak: Gorbeia –Badaia eta Arrato – Aizkorri-Aratz korridoreak barneratzen ditu, Urrunaga-Ulibarri urtegien sistemaren ingurunetik igarotzen direnak, iparraldean; ekialdeko Gasteizko Mendiak – Entzia - Izki, ekialdean; hegoaldeko mendilerroen korridoreak, hegoaldean; lurraldearen mendebaldean kokatutako korridoreak, Valderejo – Arkamu – Sobrón – Añanako babestutako espazioak konektatzen dituztenak.

- e. Vitoria- Gasteizko eraztun berdea Araba Erdialdeko Azpiegitura Berdearen parte bezala kontsideratzen da.
2. Araba Erdialdeko azpiegitura berdearen tratamenduan, ekintza hauek hartuko dira kontuan:
    - a. Sare urdina ORD 1.2 mapan jasotako eremuetan:
      - i. Isurialdeko arrozen lehengoratzea
      - ii. Erriberak zaharberritzea
      - iii. Hezeguneak lehengoratzea
      - iv. Uretako habitatak hobetzea
      - v. Ur-buruen lehengoratzea
      - vi. Akuiferoen karga hobetzea
      - vii. Ibai-lurraldea berreskuratzea
    - b. Hiriaren eta lurraldearen arteko artikulazioa ORD 1.2 mapan jasotako eremuetan:
      - i. Ibilbideak sustatzea eta hobetzea
      - ii. Berdeguneak hobetzea
      - iii. Baratze ekologikoak bultzatzea
      - iv. Iragazki berdeak hiriguneetan eta industrialdeetan
    - c. Nekazaritza-paisaia: Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala azpikategorian, heskaiak eta ezpondak lehengoratzen eta nekazaritza-bideetan zuhaitzak sartzen ahaleginduko da, landaredi naturala sustatuz, oso sinplifikatuta dauden eremu antropizatuak eta nekazaritzakoak iragazkor bihurtzeko, hala nola lotura ekologikoko espazioak, karbono-hustubideak eta klima-aldaketara hobeto egokitzeko guneak.
  3. Azpiegitura Berdea inklusiboa, malgua eta estrategikoa izango da, lurraldearen konektibitate ekologikoa bermatuko duena, biodibertsitatearen galera geldiaraziko duena eta giza kokalekuek eta azpiegitura grisek (errepideak, trenbideak eta bestelako azpiegitura linealak) eragindako lurralde-zatiketaren ondorioak arinduko dituena, naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak indartzeko. LAGen 4. artikuluko 3., 4. eta 5. paragrafoetako irizpideak hartuko dira kontuan.
  4. Hirigintza-plangintzak hiri-eremuraino hedatuko du azpiegitura berdea, auzo-mailara arte, hirigune handienetan bereziki. Bereziki kontuan hartuko dira hiriguneetan sartzen diren ibai-espazioak, bide berdeak, bioingeniaritzako obrak, hiri-parkeak, bulebarrak eta ekobulebarrak, eta hiri-baratzeak, elementu horiek fluxu biologikoen jarraitutasunerako eta/edo herritarrak lurraldera sartzeko paper garrantzitsua jokatzen dutenean edo izan dezaketenean.
  5. ORD1.2 mapan azpiegitura berdearen eta grisaren arteko interakzio-puntu gisa identifikatzen dira azpiegitura grisaren inpaktuak fluxu ekologikoak arriskuan jartzen

**-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-**

dituen gune horiek. Honako puntu hauek identifikatzen dira, eta haien gatazkak eta abiapuntuko baldintzak LPP honen memorian identifikatzen dira. Horietan, mugikortasun-azpiegituren administrazio eskudunak, dagokion ingurumen-administrazioarekin koordinatuta, esku hartzeko eremuak mugatu beharko ditu, inpaktua zuzentzeko eta jarraitutasun ekologikoa eta paisaia-integrazioa lehengoratzeko proiektu espezifikoaren garapena ahalbidetuko duten problematikak behar bezala aztertzeko, adierazitako soluzioak erreferentziatuz hartuta:

- a. Gorbeia- N-622 eta A-3600 errepideekiko interakzioa: ugaztun handien eta ornodun txikien pasabidera egokitutako zubibidea eraikitzea.
  - b. Entzia-A-1 eta A-3138 errepideekiko interakzioa, trenbidea: ugaztun handien eta ornodun txikien erabilerara egokitutako funtzio anitzeko gaineko pasabide bat eraikitzea.
  - c. Arasur- A-1 eta AP-1 errepideekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako biaduktua eraikitzea.
  - d. Arkamu – Baia – Badaia mendilerroak- AP-68 eta A-3314 errepideekiko eta trenbidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako biaduktua eraikitzea.
  - e. Arkamu – Baia – Tuyoko mendilerroak- AP-68 eta A-3314 errepideekiko eta trenbidearekiko elkarreragina: fauna talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekodukto+ biaduktua eraikitzea.
  - f. Tuyu – Zadorra mendilerroak – Gasteizko mendiak – A-1ekiko eta trenbidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekobide bat eraikitzea.
  - g. Arkaute- N-104 errepidearekiko elkarreragina, trenbide-jarduketa berriak eta Arkauteko lotunea integratzea: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako funtzio anitzeko gaineko pasabide bat eraikitzea.
  - h. Asparrena- A-1 errepidearekiko eta trenbidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekobide bat eraikitzea.
  - i. Jundiz- A-1 errepidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekobide bat eraikitzea.
  - j. Dallo- A-1 errepidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekoduktu bat eraikitzea.
  - k. Jundizeko muinoa: A-1 errepidearekiko eta trenbidearekiko elkarreragina: fauna-talde guztiek erabiltzeko egokitutako ekoduktu bat eraikitzea.
6. Mugikortasun-azpiegiturretan eskudun diren eta LPPn interakzio hori adierazi ez duten administrazioek, era berean, dauden gatazkak identifikatu beharko dituzte, eta konponbide posibleei heldu beharko diete, eskala egokian lehen adierazitako antzeko konponbideak aplikatuz. Gauzatu ez diren azpiegiturrek proiektu mailan heldu beharko diete elkarreragin horiei, eraginak konpontzeko. LAGen 4.3 artikuluan adierazitakoaren

arabera, azpiegitura berdea azpiegitura «grisarekin» elkartzen den lekuetan lehengo gailenduko da, leheneratze ekologikoko beharrezko lanak egiteko.

7. Azpiegitura berde horrek oinezkoentzako ibilbideak barne hartzen dituen azpiegitura berdearen eta grisaren arteko interakzio-puntuetan, era berean, pertsonentzako iragazkortasuna bermatuko da.
8. Era berean, definitutako hiri-hazkundeko perimetroen barruan, kontuan hartuko da horiei buruzko artikuluan adierazitakoa.
9. Hirigintza-plangintzari dagokio LPPan zehaztutako azpiegitura berdea bere eskalan garatzea.
10. Eremu funtzionaleko zerbitzu ekosistemikoetarako adierazletzat hartuko dira hornidura-, erregulazio- eta kultura-zerbitzuak, eta lurzoru-euskarriaren adierazle bat.
11. Era berean, ingurune fisikoko erabilera desberdinen arteko lotura aztertuko da, lurralde berean iraunkortasunaren ikuspegitik hainbat erabilera garatzeko aukera iker dadin. Zehazki, nekazaritzako hainbat jarduera aztertuko dira bereziki, eta energia berriztagarria hartzeko jardurekin ezartzeko aukera.
12. Azpiegitura berdean integratutako oinezkoentzako erabilera publikoko ibilbideen diseinuan irisgarritasun unibertsaleko eta genero-ikuspegiko irizpideak aplikatuko dira, segurtasuna kontuan hartuta.

### 13. artikulua Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko hiri-sistema

1. Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren hiri-sistemak elementu hauek ditu:
  - a. Eremu Funtzionaleko burua: Vitoria- Gasteiz
  - b. Azpiburuak: Santikurutze Kanpezu, Ribabellosa, Murgia, Agurain eta Otxandio
  - c. Egitura-guneak: Maeztu, Espejo, Peñacerrada-Urizaharra, Langraiz Oka, Legutio, Gopegi, Alegria-Dulantzi, Araia eta Izarra.
  - d. Arabako herrixken sistema
  - e. Lautadako Eraldaketa-Ardatz
2. Hiri-habitataren antolamendua ezartzen da, hiri-sistema osatzen duten kokaguneei, Arabako herrixkei, Lautadaren eraldaketa-ardatzari, hiri-berroneratzeari buruzko irizpideei, hiri-hazkundearen perimetroei, jarduera ekonomikoaren eta merkataritza-ekipamenduen lurzoruari eta bizitegi-kuantifikazioari buruzko zehaztapenen bidez.
3. Nolanahi ere, eremu funtzionaleko hiri-sistemaren antolamendua finkapen trinkoen eta funtzio anitzekoaren eredura bideratuko da, betiere kokaleku bakoitzaren eskalatik eratorritako baldintzak kontuan hartuta, landa-eremuen despopulazio-dinamikak prebenitzen lagunduko duen erabilera-aniztasuna ezartzeko aukera erraztuz. Eraikitako eta urbanizatutako ondarearen optimizazioa honako jardun-ildo hauen bidez zehaztuko da:
  - a. Jenderik gabeko etxebizitzetan eta alokairuko etxebizitzetan esku hartzeko mekanismoak antolatzea.

- b. Etxebizitza birgaitzea eta lehendik dagoen eraikina kontserbatzea eta hobetzea, balioa emateko.
  - c. Tipologiak aldatzea eta eskariaren bilakaerarekin bat datozen kudeaketa-moduluetara egokitzea, etxebizitza eskuratzeko modu berriak ezagutuz, hala nola cohousing-a.
  - d. Etxebizitza publikoko estrategiak bultzatzea biztanle gutxiko kokalekuetan, titulartasun publikoko etxebizitzaren eta/edo etxebizitzaren alokairuaren bidez, ingurunean paisaiatzeko integratutako tipologia kolektiboetan.
  - e. Plangintzan hutsik dagoen gaitasuna optimizatzea.
  - f. Genero-ikuspegia aplikatzea zuzkidura- eta mugikortasun-sistemen konfigurazioan.
  - g. Klima-aldaketaren aurrean arintzea eta egokitzea, baliabide berriztaezinak eraginkortasunez erabiliz eta diseinu bioklimatikoaren printzipioak aplikatuz.
  - h. Bizimodu osasungarriak sustatzea eta kutsadura murriztea.
  - i. Irisgarritasun unibertsala.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 4. artikuluko a) apartatuari dagokionez, Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzial honek bere gain hartzen du eremu funtzionala osatzen duten udalerrien hirigintza-plangintzetan definitutako eremu akustikoen mugaketa, eta, ildo horretan, udal-plangintza bakoitzak definitzen dituenak barne hartzen dituela jotzen du. Plangintzaren Euskal Erregistroan kontsulta daiteke (<https://www.euskadi.eus/hirigintza-legeria/web01-a2lurral/es/>).

#### 14. artikulua Burua: Vitoria-Gasteiz

1. Vitoria-Gasteiz, LAGek ezarritako hiriburuen euskal nukleo anitzeko sistemaren funtsezko pieza, eremu funtzionalaren goiburuko funtzioak bere gain hartzen ditu, Araba Erdialdeko biztanleriari zerbitzu publikoak eta pribatuak emateko nodo nagusi gisa.
2. Udalerriak hiri-eskalarekin artikulatutako Eremu Funtzionalaren azpiegitura berdearen zati gisa definitzen duen Eratzun Berdea osatuko da. Eratzun Berdearen jarraipena lehentasunezkoa da Hiri Hazkundearen Perimetroaren barruko hazkundeen aldean, eta beraz, hura integratzeko neurriak antolatuko dira.
3. Hirigune historikoa lehengoratzeko ekimenekin jarraitu beharko da, eta gainerako hiri-sarean lehentasuna eman beharko zaie bizitegi-lurzoruak eta jarduera ekonomikoak birsortzeko eta dentsifikatzeko ekintzei, hiri-ereduaren iraunkortasunari laguntzeko eta lurzoru urbanizagarri berria sailkatzeko beharrak murrizteko. Araudiaren 19. artikuluan definitutako eremuetan leheneratze-eragiketak lehenetsiko dira.
4. Abiadura handiko trenbidea lurperatzea aprobetxatuko da lurrazaleko egungo trazadura eta haren ingurunea berroneratzeko, bizitegi-sareen eta ekoizpen-erabileren arteko trantsizio egokia erraztuz. Nolanahi ere, etorkizuneko tren-geltokiaren kokapena baliatuko da hiriko zentraltasun-nodo berri gisa.



5. Berrikuntzaren Arkuak bi eskalatan egituratzen da ekimen gisa:
  - a. Kanpoko eskala batean, Jundizko geltoki intermodalaren (Frantzia iparralderantz doan trenbide-autobidearen eskualdeko eskalako nodo logistikoa eta terminal gisa), aireportuaren eta hari atxikitako industrialdeen eta Arabako Parke Teknologikoaren arteko artikulazioaren bidez, lurzoru-eskaera handiei lotutako kokaleku gisa, eta nagusiki bizitegi-erabilera duten ehunekin artikulatzeko zailagoak diren jarduera gisa.
  - b. Barne-eskala batean, gerraostean eta 1980ko hamarkadara arte hirian eraikitako bizitegi-auzoetan erabilera tertziarioak ugariagoak diren erabilera mistoetarako berreskuratzearen bidez, berroneratze-ekimenean esparruan, ekonomiaren bilakaera aprobetxatuz etxebizitzaren eta enpleguaren arteko interakzio handiagoko moduetarantz. Eskala horretan bertan sartuko da industrialde helduenen birkualifikazioa. Berrikuntzaren Arkuaren barne-eskala horri lotutako espazioak aireportuarekin, autobus-geltokiarekin, hiriaren erdigunearekin eta unibertsitatearekin lotuko dira, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide berriak egokituz.
6. Hirigintza-ekimen berriak proposatutako Hiri Hazkundearen Perimetroaren barruan kokatuko dira, garapen berriak lehendik zegoen hiri-bilbean integratuz, hura osatuz, lurzoruaren erabilera-intentsitate txikiko eremuak dentsifikatuz, eta hutsik dauden edo erabilera berriak har ditzaketen espazioak berrituz. Nolanahi ere, lurzoruak perimetroan sartzeak ez du eskubiderik ematen, eta ez du udal-plangintza orokorra behartzen sartutako lurzoruak urbanizagarri gisa sailkatzera, LPPaz bestelako denbora-esparru batekin jarduten baitu, eta une bakoitzeko baldintza espezifikoak kontuan hartuta ateratzen den kuantifikaziora egokitu behar da.
7. Lehentasuna emango zaie garraio-sistemara sartzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazio-, berritze- edo hazkunde-jarduketeki, eta aldiriko geltokietatik eta tranbietatik oinez irits daitezkeen eremuak izango dira eskaera handiko zuzkidurak eta ekipamenduak aurkitzeko lehentasunezko eremuak.
8. Hiri Hazkundearen Perimetroaren definizioaren arabera aztertuko da hiri-dinamika erresidentzialen edo jarduera ekonomikoaren ondorioz zaharkituta geratu diren lurzoruak balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezin gisa sartzea. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira hiri-hazkundearen perimetroaren barruko lurralde-hutsuneak, hiri-jarraitutasuna saihesteko eta eraztun berdea eta Jundizko Muinoa bezalako espazioen eta haien ingurunearen arteko lotura errespetatzeko.
9. Vitoria-Gasteizko udalerriko kontzejuetan, Arabako Herrixka kontzeptuarekin pareka daitezkeenetan, kategoria horretarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, ohiko kokagune-eredua zaintzeko.

## 15. artikulua Araba Erdialdeko Azpiburuak: Santikurutze Kanpezu, Ribabellosa, Murgia, Agurain eta Otxandio

1. Araba Erdialdeko azpiburuak beren kuadrilletako zerbitzu publikoetarako eta garraio publikoa antolatzeko zentroak dira.

- a. Santikurutze Kanpezu Kanpezu-Arabako Mendialdeko Koadrilaren azpiburua da. Haren antolamenduan kontuan hartuko dira uholde-arriskuen elkargunea eta paisaiaren kalitatea iparraldeko frontean, Ega ibairantz. Proposatutako nodo intermodalak azpiburuko dinamikak indartzen lagundu beharko du, eta A-132 errepidetik hurbil ezarriko da.
  - b. Añanako Kuadrillaren azpiburua da Ribabellosa. Haren antolamenduan, bereziki kontuan hartuko da Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoaren mugakide diren eremuekin koordinatzeko beharra eta Burgos-Gasteiz trenbidearen abiadura handiko trenbide-trazadura berria integratzea. Proposatutako nodo intermodala aurkitzeko, bereziki kontuan hartuko da Miranda de Ebroko geltokiarekin duen lotura erraza, abiadura handiko linearekin lotzeko.
  - c. Gorbeialdea koadrilaren azpiburua da Murgia. Ahalegina egingo da egungo hiri-eremua dentsifikatzeko, Baia, Gaziturri eta Ugalde ibaien uholde-arriskuak duen eragina kontuan hartuta. Proposatutako nodo intermodala anbulatorioaren inguruan kokatuko da. Eraikuntza-dentsitatea handitzeko ahalegina egingo da, azpiburua garatzeko erabili diren dentsitate txikiko patroiak direla eta.
  - d. Agurain Arabako Lautadako Koadrilaren azpiburua da. Bere antolamenduan kontuan hartuko dira definitutako hiri-hazkundearen perimetroa eta Zadorra, Lezago eta Santa Barbara ibaien uholde-arriskuak. Bizitegi-lurzorutik gertu dauden industria-lurzoruak erabilera mistoetara bideratuko dira. Proposatutako nodo intermodala tren-geltokian kokatuko da.
  - e. Otxandioko azpiburuak Ubiderekiko eta Bizkaiko gainerakoarekiko harremanak antolatzen dituen nukleo gisa funtzionatzen du, N-240 errepidearen ardatzean zehar. Bizkaiko Otxandio eta Ubide udalerriak, LPP honen ondorioetarako, Murgiako azpiburutzari lotutzat jotzen dira, Legutioko nukleo artikulatzailearekiko izan ditzaketen loturei kalterik egin gabe, gertuagoko eskala batean.
2. Azpiburu guztietarako neurri komun gisa ezartzen dira honako hauek:
- a. Saihesbideak zerbitzuan jartzearen ondorioz gaur egun funtzionaltasuna galdu duten bide-sareko zatiak hiribide bihur daitezzen bultzatzea.
  - b. Lehendik zeuden hiri-bilbe osoak amaitu eta sendotzea, egungo ehunen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatuz, hiri-morfologiaren eta tipologia arkitektonikoen bidez, egungo gunearen eta paisaiaren arteko erlazioa desitxuratzen ez dutenak. Garapen berrietan aldaketa morfologikoak eta tipologikoak gerta daitezke eredu tradizionalekin alderatuta, betiere paisaia-integrazioa zainduz.
  - c. Lehendik zeuden espazio publikoak hobetzea eta berriak sortzea, lurralde-zentraltasuna lortzen laguntzeko.
  - d. Oinezkoentzako ibilbide seguruak egokitzea, nukleoan proposatutako nodo intermodalen eta udalaz gaindiko ekipamenduen artean.

## 16. artikulua Egitura-guneak: Maeztu, Peñacerrada-Urizaharra, Espejo, Langraiz Oka, Legutio, Gopegi, Alegria-Dulantzi, Araia eta Izarra

1. Udalaz gaindiko zerbitzuak emateko gune artikulatzailetzat hartzen dira, azpiburuen eta gainerako guneen arteko maila hierarkiko ertainean. Lurralde-oreka lortzen laguntzen dute, pertsonen mugikortasunean intermodalitatea garatzen laguntzen dute, bai eta udalaz gaindiko eskalako zerbitzu publiko eta pribatuak eta elkarguneak ematen ere. Hauek dira:

- a. Maeztu, Arabako Mendialdeko Kuadrillan dagoen Arraia-Maeztu udalerrian. Arabako Mendialdeko ate gisa eratzen da Gasteiztik egiten diren ibilbideetan, eta duen posizioagatik, Kuadrillaren iparralderako zerbitzuak eman ditzake. Vasco-Navarro trenbide zaharraren bide berdearen gainean duen kokapenak eta trazadura hori hiri-bilbean txertatzeak artikulazio-ahalmena ematen diote lurraldera sartzeko, aisialdi-helburuetarako. Proposatutako nodo intermodala udaletxetik gertu kokatuko da.
- b. Peñacerrada-Urizaharra, izen bereko udalerrian. Mendialdearen eta Gasteiz, Trebiño eta Arabako Errioxaren arteko artikulazioan paper garrantzitsua du, indartzeko modukoa.
- c. Espejo (Valdegovía/Gaubeako udalerrian) eta Langraiz Oka, Añana/ Arabako Haranak Kuadrillako Iruña de Oca/Iruña Okako udalerrian. Espejon, Omecillo ibaiaren uholde-arriskuak eragindako afekzioa hartuko da kontuan. Langraiz Okan kontuan hartuko da Zadorrari lotutako uholde-arriskua, eta, horrez gain, Vitoria-Gasteizekin koordinatu beharko da, bi udalerriek partekatzen duten Hiri Hazkundearen Perimetroan sartutako lurzoruak antolatzeke; proposatutako nodo intermodala tren-geltokian kokatuko da.
- d. Legutio, izen bereko udalerrian, eta Gopegi (Zigoitia), Gorbeialdeko Kuadrillan. Gopegin, Zubialde ibaiaren uholde-arriskua hartuko da kontuan, eta proposatutako nodo intermodala Zigoitiko udaletxearen inguruan kokatuko da. Legution, kontuan hartuko dira Hiri Hazkundearen Perimetroaren proposamena; Bizkaiko Otxandio eta Ubide udalerriak Legutiorekin lotuta daudela aitortzen da, baita Santa Engrazia ibaiaren ingurumen-fluxuen iragazkortasunaren beharra N-240 errepidearekiko; proposatutako nodo intermodala N-240 eta A-623 errepideen arteko bidegurutzearen inguruan kokatuko da.
- e. Alegria-Dulantzi, izen bereko udalerrian, eta Araia (Asparrena), Arabako Lautadako Kuadrillan. Kontuan hartuko da abiadura handiko trenbidearen trazadura integratzeko beharra, baldin eta, azkenean, Gasteiz-Iruña konexioari dagokion informazio-azterlana zonari eragiten dion alternatiba onartzen bada; era berean, kontuan hartuko dira Lautadako Transformazio-Ardatzari buruzko zehaztapenak. Proposatutako nodo intermodalak tren-geltokietan kokatuko dira.
- f. Izarra, Urkabustaizko udalerrian. Trenbidea igarotzeak dakarren aukera kontuan hartuko da, eta bidaiari-zerbitzua izateko aukera aztertuko da, nodo intermodala eratzen lagunduz.

2. Nukleo artikulatzaile guztietarako neurri komun gisa aplikatuko dira 15.artikuluko 2.paragrafoko azpiburuetarako karakter honekin ezarritakoak.

## 17. artikulua Arabako herrixkak

1. Arabako herrixkatzat hartzen dira lurzorua lehen legeriaren aurreko sorburuak, oro har bilbe unitariokoak, etxebizitza-kopuru txikia dutenak eta udal-burutza ez direnak, nekazaritza-funtzionamenduaren ondorioz lurraldean kokatuak, eta egitura hori aitortu, babestu eta garatu egiten da.
2. Honako irizpide hauek gomendatzen dira herrixka horiek hiri-lurzoru finkatugabeen eta lurzoru urbanizagarrian handitzeko jarduketetarako:
  - a. Udal-plangintza orokorrak hektareako 15 etxebizitzako gutxieneko dentsitatea sartzea lurzoru urbanizagarriko sektoreetarako eta hiri-lurzoru finkatugaberako.
  - b. Era berean, udal-plangintza orokorrean lau etxebizitzako (multzokatuak, atxikiak edo blokean) etxebizitza binakatuen edo kolektiboen gutxieneko ehuneko sartzea. Gomendagarria da eremuko etxebizitza guztien %75 baino txikiagoa ez izatea, eta gutxieneko lurzatiaren tamaina 400 m<sup>2</sup> baino txikiagoa ez izatea familia bakarreko etxebizitza isolatu edo pareatu batean. Etxebizitza pareatutzat hartuko da bi etxebizitzak modu trinkoan, eraikuntza-bolumen bakarrarekin, multzokatzen direnean, eta ez da irtenbiderik onartuko mehelinean bigarren mailako bolumen bakarra partekatzen denean.
  - c. Lehendik zeuden hiri-bilbeak amaitu eta finkatuko dira, egungo ehunen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatuz, hiri-morfologiekin eta egungo gunearen eta paisaiaren arteko erlazioa desitxuratzeko ez duten tipologia arkitektonikoekin. Lehendik zeuden espazio publikoak hobetuko dira eta, haziz gero, berriak sortuko dira, lehendik daudenekin harreman egokia izanik.
3. Herrixka bakoitzerako etxebizitza-kopuruaren gehieneko hazkundea %100ekoa izango da, herrixka bakoitzean daudenena. Hiri-lurzoru finkatugabeen integratutako jarduketa bakoitza eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77. artikuluan ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna baino txikiagoa duen bizitegitarako lurzoru urbanizagarriko sektore proiektatu bakoitzak gutxieneko horiek hartu beharko ditu.
4. Hirigintzaren antolamenduak herrixka paisaian egoki integratzen saiatuko da, elizaren irudi nagusia errespetatuz eta gunearen eta ingurunearen arteko trantsizio harmonikoa bultzatuz.
5. Kontzejuen berezitasuna eta baliabideak modu iraunkorrean kudeatzeko autonomia baliatuko dira.

## 18. artikulua Lautadako Eraldaketa Ardatza

1. Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatza lurralde-eremu lineala da, garraio kolektiboz hornitua, Miranda de Ebro- Vitoria-Gasteiz -Altsasu trenbide-lineak lotzen dituen Arabako Lautadako kokalekuen garapena egituratzeko eginkizuna duena, eta iraunkortasun-irizpideen arabera protagonismoa handitzen du, ardatzean integratutako kokaguneen indartzeak aukera eman dezan Arabako herrixken sarearen artikulazioa hobetzeko eta hazkundea sakabanatzeko arriskua saihesteko. Vitoria-Gasteizko hiriguneak lotzen ditu



- ix. Judimendi
- x. Ariznabarra
- xi. Zumaquera pasealekuaren inguruak

b. Gamarra, Betoño, Uritiasolo eta Ehari Gobeuko industrialdeak

- 2. Agurain/Salvaterrako udalerrria: kalteberatasun ertaineko bizitegi-guneak, EAeko Eremu Kalteberen Bisorean identifikatuak, Senda de Langarica kalearen inguruetan.

## 20. artikulua Hiri-hazkundera

- 1. Lurralde-izaerako hirigintza-esku-hartzeen hiri-hazkundera artikulua honetan adierazitako hiri-hazkunderako perimetroen barruan kokatuko da. Horietatik kanpo, hiri-lurzoruak handitu ahal izango dira soilik artikulua honetako 4. paragrafoan adierazitakoaren arabera, eta ez da inola ere onartzen lehendik dauden guneetan oinarrituta ez dagoen hazkunderik.
- 2. Hiri-hazkunderaren perimetroei aplikatzeko baldintza orokorrak:
  - a. Hiri-hazkunderaren perimetroak, hurrengo letran eta artikulua honen 4. paragrafoan adierazten dena izan ezik, hazkunderaren gehieneko muga dira ezartzen diren udalerrientzat, baina ez dakarte udal-plangintzak hedadura osoa lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko betebeharririk, eta ez dute horretarako eskubiderik sortzen. Nolanahi ere, lurzoru urbanizagarri berrien edo finkatu gabeko hiri-lurzoru berrien sailkapena perimetroaren barruan kokatu beharko da, artikulua honetan adierazitakoa izan ezik, eta dagoeneko okupatuta dauden lurzoruak aprobetxatzeko ezintasuna justifikatu beharko du. Dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruak dentsifikatzen eta birsortzen ahaleginduko da, eta lehentasuna emango zaie garraio publikoko geltokietatik, tranbietatik, trenbideetatik eta nodo intermodaletatik oinez irits daitezkeen guneei, bai eta eskari handiko ekipamenduen inguruneari ere. Lurzorua udal-plan orokorretan sailkatzean, kontuan hartuko da hirigintza-tresnaren denbora-aurreikuspenak laburragoak direla LPPkoak baino.
  - b. Hiri-hazkunderaren perimetroa handitu ahal izango da lurzoru produktiboetako jarduketetarako, aldeztu aurretik perimetro baten barruan eta haren mugaren ondoan ezarrita dauden enpresen kasuan, baldin eta lurzati mugakideetara zabaltzea planteatzen badute, betiere emaitza gisa lurzati zatietan berri bat eratzen bada. Gehienez ere, enpresak ezartzen duen partzelaren hasieran zegoen zatia baino % 50 gehiagoko azalera izan ahalko du, jatorrizko lurzati gehienez 5.000 m<sup>2</sup> handituz. Eragiketa horrek ez du aldaketarik ekarriko perimetroaren mugaketan, LPP hau planifikatzen den eskalan.
  - c. Nolanahi ere, ingurunearekiko integrazioa aztertuko da, azpiegitura berdeari eta paisaiari dagokionez, eta lehentasuna emango zaio jada urbanizatuta dauden ehunen ondoko lurzoruak okupatzeari, baldin eta ehun horietan ingurumen-babesik ez badago edo arriskuak badaude, eta, ahal den neurrian, Natura 2000 sarea osatzen duten elementuen jarraitutasuna errespetatuko da. Arreta bereziz tratatuko dira urbanizazioz okupatutako espazioen ertzak, lurraldearen

gainerako eremuetarako trantsizioan, ahal den neurrian kontuan hartuta hiri-hazkundeko perimetroak zeharkatzen dituzten edo horien barruan dauden KBEetako eremu periferikoak. Ibilguak zeharkatzen dituzten edo ibilguekin muga egiten duten hiri-hazkundeko perimetroetan, ibaiertzeko zerrenda horien berreskurapena eremuen hirigintza-garapenarekin lotu beharko da.

- d. Estalkien, markesinen eta beste forma batzuen bidez, hirigintza-erabilerekin integratutako energia berriztagarriaren tokiko sorkuntza eta banaketa sustatuko da, haien ahalmena maximizatuz, eta lehendik zeuden eta hiri-hazkundeko perimetroen barruan dauden parke fotovoltaikoak finkatuko dira, etorkizuneko antolamenduetan integratuz. Nolanahi ere, lurzorua beste erabilera batzuetarako aprobetxatzea bultzatuko da, eraikinen gaineko instalazioaren bidez energia biltzeko ahalmenari eusteko aukera emanez.
- e. Balio estrategiko handiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko kategoria duten lurzoruaren etorkizuneko okupazioa konpentsatu egiten da karakteristika horietako lurzoruak aireportuaren hegoaldean babestearekin, artikulua honen 3.c atalean adierazitakoarekin bat etorritz.
- f. Hiri-hazkundearen perimetroetan kokatutako garapen berriko lurzoruak gainerako kokaleku-sistemarekin lotzeko ahalegina egingo da, mugikortasun jasangarriko irtenbideen bitartez, bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen arloko foru-plangintzaren proposamenekin artikulatzea barne.
- g. Esparruen hirigintza-plangintzan honako zehaztapen hauek aplikatuko dira, errepideei buruzko legeria kontuan hartuta:
  - i. Foru Aldundiak desjabetutako jabari publikoko eremuaren muga zehaztu ondoren, zortasun-eremua adierazi beharko da. Eremu hori kontuan har badaiteke ere eremuari lotutako azaleretarako, ezin izango du berdegunea ez den beste erabilerarik izan, eta hura aldatzea (topografikoa barne) edo beste helburu batzuetarako erabiltzea dakarren edozein jarduketatik libre geratu beharko du.
  - ii. Sorkuntza fotovoltaikoko eremuetako instalazioak, elementuak eta moduluak eraginpeko errepideen eraikuntza-lerroa libre utziz kokatu beharko dira beti. Lerro hori Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 42. artikuluan definitzen da.
  - iii. Era berean, ukitutako lurzatiak berdintzeko eta horien perimetro-itxiturak egiteko behar diren lanak Foru Sareko errepideen zortasun-eremua libre utziz gauzatu beharko dira. Gainera, alde zuzenetik, instalazio berrietarako sarbideak zehaztu beharko dira, kontuan hartuta errepideen sektoreko araudian horretarako jasotako xedapenak bete behar direla une oro.

3. LPPak definitutako eta ORD3 mapan islatutako hiri-hazkundeko perimetroetarako baldintza bereziak:

- a. Arasurreko ingurua. Egungo eremu logistikoa, Ekian parke fotovoltaikoa eta Lacorzanako Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia (azaroaren 3ko 148/2023 Foru Agindua bidez behin betiko onartua) hartzen dituzten lurzoruak barne hartzen ditu. Perimetrotik kanpo geratzen dira ibilgu nagusiak, Baia ibaiaren eta haren babes-eremu periferikoaren KBEan sartutako eremuak eta Lacorzanako aintzira eta haren inguruko eremuak, zeinak Hezeguneen LPSren arabera arautzen baitira:
- Landaredun ertz perimetral bat sortzea, espazioa integratzea erraztuko duen eraztun berde gisa, Zadorra ibaia diseinuaren zati gisa txertatuz. Ekintza horiek hiri- eta lurralde-harremana hobetzeko proposamenekin artikulatuko dira, bai eta ur-zikloaren funtzionamendu egokia sustatzeko proposamenekin ere.
  - Estalkietako landaredia indartzea eta eguzki-panelak eta energia berriztagarriak hartzeko beste elementu batzuk integratzea.
  - Parke fotovoltaikoetan erabilera bateragarrien ezarpena bultzatuko da, jarduera ekonomikoetarako pabilioien antolamendua barne, estalkietan gaur egun ezarrita dagoenaren pareko potentzia eskaintzeko aukera emango dutenak.
  - Nekazaritza-lurraren koroa paisaia-trantsiziozko elementu gisa kontserbatzea.
  - Ertzetako pabilioien kanpo-diseinurako oinarri teknikoak garatzea, oraindik egin ez diren pabilioien irudi homogeneoa sortzeko edo izaera komuna, lerro sinpleak eta kolore argiak proposatzeko. Oinarri horiek Paisaiaren Interes Berezikoko Eremuaren (PIBE) estetika globala zehaztu beharko dute (Erdialdeko Arabarako sarbidea, Miranda de Ebrotik), eta bertan inskribatuko da. Espazioak berrantolatzeke paisaia-kalitatearen helburua aplikatuko da, lurzoru logistikoa paisaiaren aldetik integratzeko, haren itxura eta pertzepzioa hobetuz.
  - Ribabellosako CLH instalazioen Kanpoko Larrialdi Plana kontuan hartzea. Esku hartzeko alderdiak 180m-ko erradioa du, alerta-eremuak 208m-koa.
- b. Langraiz Oka- Vitoria- Gasteiz. Gasteizko herriguneko lurzoruak barne hartzen ditu, eta mendebalderantz hedatzen da, A-1 ardatzari lotutako industria-lurzoruak barne, baita haren eta abiadura handiko trenaren etorkizuneko bidearen arteko hedadura-aurreikuspena ere. Vitoria-Gasteizko Eratzunaren AEIPren barneko hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak hartzen ditu.
- Administrazio eskudunak, aukeraren arabera, Araba Erdialdeko Paisaiaren Katalogoa egin beharko du:
    - Vitoria-Gasteizko Hegoaldeko Lautadako Sarbiderako Baterako Paisaiaren Ekintza Plana, industria nagusi den eremu hori berrantolatzeke.



2. Baterako Paisaiaren Ekintza Plana Zadorra Erdialdea-Santa Katalinako PIBEn.
  - ii. Perimetro horri paisaia- eta ekologia-iragazkortasuneko hiru puntu eman behar zaizkio, betiere, Natura 2000 Sareko eremuak, eraztun berdea eta Zadorra ibaiaren KBEaren babes-eremu periferikoaren barruko eremuak errespetatzen direla ziurtatuz.
    1. Gasteizko mendiak- Zadorrako meandrea, Langraiz Okako herrigunearen hego-ekialdean. Autobiaren eta trenbidearen artean urbanizatu daitezkeen lurzoruak diseinatzen ditu, eta iragazkortasun hori ekobideen edo antzeko irtenbideen bidez bermatzen du.
    2. Gasteizko mendiak- Zadorrako meandrea, Jundiz mendiaren inguruan, Mendizorrotz errekaaren ardatz naturala osatuz, ibilgua integratzen duten lurzoru industrial finkatuek baldintzatuta.
    3. Ibaiako errekaen jarraipena, Zabalganako basoaren eta Zadorraren ibilguaren artean, Mercedes-Benz lantegiaren inguruan. Nolanahi ere, etorkizuneko esku-hartzeek Eraztun Berdea bere osotasunean eta Natura 2000 Sareko espazioak errespetatu behar dituzte.
  - iii. Espazio naturalen, agrologikoen eta espazioaren balio historiko-kulturalen eta paisaia-balioen gaineko eraginak aztertuko dira, haien inpaktua minimizatzeke eta lurraldearen jarraitutasun ekologikoaren integrazioa eta mantentzea bermatzeko:
    1. Zabalgana-Jundiz aldean, nolanahi ere, Eraztun Berdearen jarraipena zainduko da puntu horretan. Lehendik dagoen irla-hariztiaren eta hiri-lurzoruaren mugatik 50 metroko distantzia errespetatuko da. Nolanahi ere, Zuhatsu eta Astegieta artean berdearen jarraitutasuna bermatuko da, baita Zuhatsu iparraldean dagoen harizti irlaren kontserbazioa ere.
    2. Jundiz mendiaren zatian, muinoa garrantzi historikoaren arabera ulertzeko aukera emango duten jarraitutasunak zainduko dira. Horretarako, inguruneke elementuen integrazioa kontuan hartuko da, muino hori errespetatuz.
    3. Iruña Okako zatian eraikitako eta urbanizatutako jarraitutasuna zatikatzeko neurriak garatuko dira, Zadorrak Langraiz hegoaldean Los Llanos eta Subillabide artean egiten duen meandroan hazkunde-perimetra irekitzen dela aprobetxatuz, Gasteizko mendietarantz jarraitutasuna sustatuz.
- c. Vitoria- Gasteizko aireportua: aireportua eta lurzoru urbanizagarriko eremuak hartzen ditu, mendebaldean sailkatuta daudenak, eta partzialki ekialdean. Kasu

guztietan kontuan hartu beharko dira uholde-arriskua eta onar daitezkeen neurri zuzentzaileak.

- i. Gaur egun irisgarritasun hobea duenez, lehentasuna emango zaio pistaren mendebaldean dauden lurzoruen garapenari.
  - ii. Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak baimendu beharko ditu bide-perimetroa sartzeko irtenbideak.
- d. Arabako Parke Teknologikoa: gaur egungo Parke Teknologikoa mendebaldetik eta ekialdetik inguratzen duten lurzoruak dira, eta hegoaldetik Arakako basearen Defentsa Nazionalari lotutako instalazioekin egiten dute muga. Ezagutzen berritzaileak eta intentsiboak diren jardueren ikerketarekin eta garapenarekin lotutako jarduera ekonomikoak hartzeko asmoa duen eremua da.
- i. Administrazio eskudunak, aukeraren arabera, AP1/N-622 errepidetik sarbide berri bat egitea aztertuko du, eta lehendik dagoen parkearen bilbearekiko konexio egokia ziurtatuko du. Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak baimendu beharko ditu bide-perimetroa sartzeko irtenbideak.
  - ii. Administrazio eskudunak, aukeraren arabera, Gasteizetik lotura sustatuko du, mugikortasun iraunkorreko moduen bitartez.
  - iii. Dagoeneko okupatuta dauden espazioen eraikuntza-dentsitatea handitzea bultzatuko da, hiri-garapen iraunkorragoko eredu baterantz aurrera egiteko. Panel fotovoltaikoak aurreikusiko dira aparkalekuetan eta eraikuntza berrien estalkien azaleraren % 50ean gutxienez; gai hau lehendik dauden eraikuntzetan iradokitzen da.
  - iv. Errexaltza eta Betolaza erreketako landaredi autoktonoko unadak eta ibaiertzetako eremuak mantenduko dira.
- e. Goiain- Lladie: bai Goiaingo industrialdea, bai N-240, A-3006 eta A-627 errepideen arteko elkargunearen inguruko hiriguneak, bai espazio horien arteko lursailak ere hartzen ditu, non loturarik gabeko ezarpenei koherentzia eman nahi zaien. Perimetro horretatik kanpo geratzen dira Zadorrako KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruko eremuak, bai eta Zadorraren Sistemako Urtegien KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruko eremuak ere.
- i. Urrunagako urtegirantz eraikitako aurrealdea formalizatu behar da, baita AP-1etik ikus daitekeen aurrealdea eta abiadura handiko trena ere.
  - ii. Kontuan hartu behar da Santa Engrazia ibaiaren eremu funtzionala azpiegitura berdean sartzea eta autobiko zubiarekiko fluxu ekologikoetarako iragazkortasun-beharra. Hirigintza-plangintzak baztertu egingo ditu ibilguari lotutako balio ekologikoko eremuak, eta katalogatutako habitat diren eremu interstizialetan ziurtatu egingo da haien antolamendua bateragarria dela haien kontserbazioarekin.
  - iii. Ahaleginak egingo dira N-240 eta A-627 errepideetako A-3006 errepidera sartzeko korapiloen berrkonfigurazioak paisaian egoki

integratzeko. Neurri egokiak hartuko dira, halaber, Urrunagako herrigunerantz doan ertzeko paisaia-tratamendurako.

- f. Agurain/Salvatierra: egungo industrialdeko lurzoruak, hiri-bilbearen zati direnak, eta jarduera ekonomikoak iparralderantz eta hegoalderantz hedatzea ahalbidetzen duten espazioak hartzen ditu.
- Beharrezkoa da industria-erabilera paisaiaren aldetik integratzea, A-1 autobidetik eta iparralderantz aurreikusitako handitze-zatian, Zadorra bailarari dagokionez.
  - Donejakue Bidearen paisaia-integrazioa bermatu behar da, dagoen industrialdeko hiri-lurzoru finkatua zeharkatzen baitu. Era berean, katalogatutako habitat diren zuhaitzien eremu interstizialen kontserbazioa ziurtatu beharko da.
  - Zadorraren ibaiadarrei lotutako uholde-arriskua hartuko da kontuan.
  - Parke fotovoltaikoa jarduera ekonomikoetarako lurzoruak iparralderantz izan ditzakeen hedapenen antolamenduan integratuko da, estalkian integratzea erraztuz eta beste jarduera produktibo batzuekin okupatzea ahalbidetuz.
- g. Asparrena-San Millan: erabileren izaeragatik eraikuntza-intentsitate txikia duten industrialde gehienak osatzen dituzten lurrak dira, eta mendebalderantz hedatzen den espazio bat.
- N1 korridorerako (San Millán/Donemillaga) Paisaiaren Katalogoko zehaztapenak aplikatuko dira, dauden industria-erabilerak paisaia hobetzeko ekintzak barne.
  - Arakil ibaiaren KBEko Natura 2000 Sarean sartutako lursailak errespetatuko dira, bai eta KBE horren babes-eremu periferikoaren barruan industria-eremu finkatuak ez diren espazioak ere, eta perimetroaren barneko landaredi autoktonoko eremuak kontserbatuko dira.
  - Araian proposatutako nodo intermodalarekiko lotura egokia bultzatuko da.
  - Jarduketak diseinatzean, kontuan hartuko da Egilazko hirigunean izan dezakeen eragina.
- h. Lantarón: Komunioi herrigunetik mendebaldera dauden lursailak hartzen ditu, Zubillaga eta Lantarongo poligonoak barne, AP-1etik hurbil eta Arasurrekin sinergia potentzialak dituztenak, eta Ebroko KBEan eta haren babes-eremu periferikoan sartutako eremuak kanpo uzten ditu, gaur egun urbanizatuta dauden eremuak izan ezik.. Azalera handiko lursailak behar dituzten enpresak hartzeko ahalmena du. Espazio horretan, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuari lotutako hiru instalazio daude (840/2015 Errege Dekretua, substantzia arriskutsuak dituzten istripu larrien arriskua kontrolatzeari buruzkoa).

- i. Antolamenduan kontuan hartuko dira kanpoko larrialdi planetako jarraibide hauek:
    1. Hexion Specialty Chemicals Iberica, S.A. Esku hartzeko eremuak 69 metroko erradioa du, eta alerta-egoerako eremuak 247 metroko erradioa.
    2. Dekitra, S.A. Esku hartzeko eremuak 6.600 metroko erradioa du, alerta-eremuak 10.000 m-koa.
    3. General Química, S.A. Esku hartzeko alderdiak 1.720 m-ko erradioa du, alerta-eremuak 10.000 m-koa.
  - ii. Industria-ehun berrien definizioan, eta ingurumenarekiko eraginak kontutan hartuz, gutxienez 100 metroko zabalerako irekiera mantenduko da A-2122 errepidearen eta Ebro ibaiaren artean, ibilgurako iragazkortasuna bermatzeko.
  - iii. Natura 2000 Sarean sartutako lursailak errespetatuko dira.
  - iv. Nolanahi ere, egiaztatu behar da arriskuak prebenitzeko plangintzan dauden distantziak eta zehaztapenak gaur egungoak direla, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituran (geoeskadi bisorea) dagoen informazioa egiaztatuz.
4. LPPko hiri-hazkundeko perimetroak zehazten ez diren udalerrietako hiri-lurzorua handitzea.
- a. Biztanlegune bakoitzeko bizitegi-lurzoruetan, hiri- eta bizitegi-azaleraren % 30eko gehieneko hazkundea onartuko da. Salbuespen gisa, LAGen araudiaren 13.2.e artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean, aurretiko plangintzaren ondoriozko ehuneko handiago bat onartu ahal izango da, baldin eta hirigintza-garapenerako edo plangintza egikaritzeko sustatutako jarduketak kontuan hartuta justifikatzen bada. Hala ere, kasu horietan ez da onartuko lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri bihurtzea.
  - b. Jarduera ekonomikorako lurzoruetan hazkundea baimenduko da Jarduera Ekonomikoen LPSeko zehaztapenen arabera; hala, garapen txikiko udalerrietan, 3 ha onartuko dira, eta hazkunde ertainekoetan, 15 ha arte.
  - c. Hori guztia, baldin eta harrera-gaitasun nahikoa badago, natura-ingurunean inpaktu esanguratsurik eragin gabe eta gainerako parametroak betez, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
5. Hiri-hazkundeko eremu guztien diseinuan, irizpide hauek aplikatuko dira:
- a. Genero-ikuspegia.
  - b. Irisgarritasun unibertsala.
  - c. Klima arintzea eta egokitzea.
  - d. Bizimodu osasungarriak sustatzea eta kutsadura murriztea.

- e. Perimetroak ibilguek zeharkatzen dituztenean edo ibilguekin muga egiten dutenean, ibaiertzen berreskurapena eremuen hirigintza-garapenarekin lotu beharko da.

## 21. artikulua Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua

1. Jarduera ekonomikoak eta merkataritza-ekipamenduak garatzeko baldintza orokorrak:
  - a. Hirigintza-plangintzak lehentasuna emango dio izaera horretako lurzoruak berroneratzeari, erabilera hauek ezartzeko, lurzoru ez-urbanizagarriaren birsailkapenaren aurrean eta, hala badagokio, berroneratze horrek inguruko eremuekin sor ditzakeen erabilera-gatazkak aurreikusiko ditu.
  - b. Hirigintza-ordenantzek lurzoruaren erabilera-intentsitate handiagoa eta malgutasun handia bultzatuko dute jardueren baldintzen bilakaerara egokitzeko. Jardueren arteko harremanari esker sinergiak eta berrikuntza sortzea erraztuko duten erabilera elkartuak izatea sustatuko da.
  - c. Lurzoru horien telekomunikazio-azpiegiturak eguneratzea bultzatuko da.
  - d. Energia berriztagarria sortzeko aukeren aprobetxamendua maximizatuko da, betiere paisaiarekin integratzeko baldintzak kontuan hartuta. Era berean, sinbiosi industrialeko akordioak sustatuko dira ekonomia zirkularreko, ekodiseinuko, etab... politikekin bat datozen jarduketan barruan.
2. Vitoria- Gasteizko Berrikuntzaren Arkurako baldintza bereziak:
  - a. Vitoria- Gasteizko Berrikuntzaren Arkuak hurrengo hauek barneratzen ditu:
    - i. Bizitegi- eta industria-ehunak, Zabalgana etorbideak, Juan de Garay, Zaramaga, Jacinto Benavente, Zumabide eta Tanis Aguirrebengoak osatutako gerrikoaren inguruan. 19. artikuluan identifikatutako bizitegi-erabilera nagusia duten eremuetan sartzen dira.
    - ii. Arabako Parke Teknologikoaren (Miñao), Goiaingo poligonoaren (Legutio) eta Vitoria-Gasteizko aireportuaren inguruko hiri-perimetroetako lurzoruak.
  - b. Aurretik adierazitako gerrikoaren inguruko bizitegi-ehunetan erabilera mistoen eredu dentso bat garatzea bultzatuko da. Eredu horretan, inguruan ohikoak diren lursailletako jarduerekin eta merkataritza-jarduerekin bateragarriak diren hirugarren sektoreko jarduerak bizitegi-erabilerarekin lotuta garatuko dira. Gaur egun industrialak diren ehunetan hirugarren sektoreko aktibazioa sustatuko da, kokapenari egokitutako industria-moduak berraktibatzearekin batera.
  - c. Parke Teknologikoaren, Goiaingo eta aireportuaren inguruko hiri-hazkundearen perimetroetan kokatuko dira lurzatiaren tamaina handiagoa eskatzen duten jarduerak eta/edo salgaien mugikortasun-eskaerengatik erabilera-gatazkak sor ditzaketenak.

## 22. artikulua Bizitegi-kuantifikazioa

1. LPP honek eremu funtzionaleko udalerrien plangintza orokor bakoitzaren aurreikuspenetan sartu beharreko gehieneko bizitegi-ahalmenak ezartzen ditu, IV. eranskinetan (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arauen bizitegi-kuantifikazioa) ezarritako oinarritzko kalkulu-irizpideen arabera. Lurralde-Ereduaren Osagaia baliogabetzat jotzen da.
2. Aurreikusitako ahalmenaren ondoriozko etxebizitza berrien kokapena LPP honetako zehaztapenak eta LAGetan horretarako adierazitako irizpideak kontuan hartuta definituko da, eraikitako ondarea kargan jartzeko eta lurzoru urbanizatuaren okupazioak errazteko, lurzoru berriak kolonizatzearen aurrean.
3. Bizitegi-kuantifikazioan jenderik gabeko etxebizitzaren guztizko kopuruaren % 10 sartzen da, LAGen IV. eranskinetan definitutako mota horretako etxebizitzaren ehuneko teknika kendu ondoren.
4. Bizitegi-ahalmenaren doikuntza udalerririk bakoitzaren estatistika-datuekin egingo da, bere plangintza orokorra berrikusten denean edo hura aldatzen denean, bai eta bere lurraldeak duen harrera-ahalmenari buruzko datuekin ere.
5. Agurain/Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Iruña de Oca/Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz udalerrietan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 82. artikuluan ezarritako babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzetarako lurzoru erreserbatzeko betebeharra aplikatuko da, Lege horretan ezarritako baldintzetan.
6. Gasteizko udalerrian zuzkidura-bizitokietarako lurzoru erreserbatzeko betebeharra aplikatuko da, aipatutako 2/2006 Legearen 81. artikuluan ezarritako baldintzetan.
7. Nukleo anitzeko udalerririk edo kontzeju-egiturakoak:
  - a. Nukleo anitzeko udalerrietan edo kontzeju-egiturakoetan, irizpide orokorretatik sortzen den bizitegi-kuantifikazioaren zifra gune nagusiari eta bizitegi-garapenak planteatzen diren guneei aplikatuko zaie (lurzoru urbanizagarriko sektoreak).
  - b. Kontzeju-egitura duten udalerrietako gainerako guneetan, gune bakoitzean etxebizitzaren kopurua handitzea ahalbidetuko da, baina ez lehendik dauden etxebizitzena baino handiagoa.
  - c. Aukeran, kontzeju guztien bizitegi-ahalmena gehitu ahal izango zaio kuantifikazioaren kalkulu orokorrari.
8. Eremu funtzionaleko landa-guneetan (Lacorzana (Armiñon), Nafarrate (Legutio), Anteparaluzeta eta Mekoleta (biak Otxandion)), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen eta LAGak Aplikatzeko Arauen II. eranskinetan xedatutakoa beteko da.
9. Etxebizitzarako eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen zehaztapenak hartuko dira kontuan, bereziki alokairu babestua sustatzeko erreserbei buruzko xedapenak.

## 23. artikulua Plangintzak bateragarri egitea

1. Vitoria-Gasteiz/Iruña Okako eta Asparrena/San Millaneko Hiri Hazkundeko Perimetroek udalerrri bati baino gehiagori eragiten badiete, Bateragarritze Plan bat izan beharko dute, udalerrri bati baino gehiagori eragiten dioten lurzoru urbanizagarriak garatzeko, LPPan ezarritako zehaztapenekin bat etorritik. Nolanahi ere, udalerrrien arteko koordinazio egokia zainduko da, aipatutako perimetroei dagokienez.
2. Lurralde-harremanaren xede diren eremuak 43. artikuluan arautzen dira.

## 24. artikulua Ura

1. Hauek dira LPPren helburuak uraren arloan:
  - a. Ibaietan eta ibilguetan espazioak berreskuratzea, espazio urbanizatuak berroneratuz.
  - b. Lurpeko uren babesaren lurralde-dimentsioa garatzea, prebentzio-politiken aplikazioan oinarrituta.
  - c. Uholdeen prebentzioa eta goi-arroen drainatzea
  - d. Azpiegiturak hobetzea, baliabidea modu eraginkorragoan erabiltzeko
2. Ibilguetako espazioak berreskuratzea, espazio urbanizatuak berroneratzearen bidez: hirigintza-plangintzak berroneratze horretarako beharrezko neurriak zehaztuko ditu, LPP honetako zehaztapenak kontuan hartuta.
3. Nitrito- eta fosfato-isurketek kutsatutako eremuak: hirigintza-plangintzak beharrezko neurriak ezarriko ditu egoera horri aurre egiteko eta kutsadura murrizteko, URAREN EAeko lurpeko ur-masetan nitritoen eta fosfatoen erreferentzia-mailak ezartzeko 2018ko txostena kontuan hartuta, eta arreta berezia jarriko du Vitoria-Gasteiz hiriaren inguruan eta Zanbranan.
4. Uholde-arriskuko eremuetan kokatutako lurzoru kutsatuen eremuak: hirigintza-plangintzak uholde-lautadetan kokatutako lurzoru potentzialki kutsatuen eremuak identifikatuko ditu, arreta berezia jarriko du Gasteizko iparraldeko industrialdeetan eta baldintza horrek eragindako lurzoruetan (Otxandio, Agurain, Dulantzi, Kuartango, Morillas, Ribabellosa eta Asparrena), eta prebentzio-neurriak zehaztuko ditu.
5. Ur-hornidura eta saneamendua. Hirigintza-aurreikuspenek aintzat hartu beharko dute eskariak behar bezala betetzeko baliabide nahikoa dagoela eta, aldi berean, hartuneen arteko emari ekologikoen araubideekiko bateragarritasuna. Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailearen (2016-2026) zehaztapenak sartu dira.
  - a. Ur-hornidura
    - i. Gordailuak berritzea eta handitzea.
    - ii. Galerak dituzten banaketa-sareak berritzea.
    - iii. Uraren kalitatea hobetzea, ura iragazteko edo kudeatzeko sistemen bidez.
    - iv. Hornidura bermatzeko arazoak konpontzea, sarearen interkonexioaren bidez, eta baliabideak putzuen bidez arautzea.

b. Saneamendua

- i. Arazketa-sistema berriak ezartzea, baliabideak modu jasangarriagoan eta efizienteagoan kudeatzeko.
- ii. Plan Zuzentzailean bertan proposatutako sistemetara edo etorkizunekoetara konektatzea.
- iii. Kolektore-sarea hobetzea.

## 25. artikulua Energia

### 1. LPPk energiaren arloan dituen helburuak honako hauek dira:

- a. Konektatutako energia-autosufizientziarantz aurrera egitea, eredu deszentralizatu baten arabera tokiko energia-ekoizpena handituz, Estatuko eta Europako gainerakoekiko interkonexioa hobetzeko testuinguru batean, LAGak aplikatzeko arauen 16.5 artikuluan aipatzen den Energia Berriztagarrien LPSren, Euskadi 2030 Energia Estrategiaren eta Klima Araba 2050 Estrategiaren zehaztapenekin bat etorritik.
- b. Energia-kontsumoak murriztea, oro har, erabileren efizientziaren eta horien arteko harremanen bidez, arreta berezia jarrita lehendik dauden hiri-ehunetan eta iturri berriztaezinez elikatutako sistemetan. Hiri-eredu trinkoa eta erabilera-nahasketa duena sustatzea.
- c. Iturri berriztagarrietatik ekoiztako energia elektrikoaren kontsumoa sustatzea, eta energia-sistema deskarbonizatzeko helbururantz aurrera egitea, klima-aldaketa arintzen laguntzeko.
- d. Sorkuntza deszentralizatuaren eredua indartzea, Arabako maila anitzeko gobernantza-sare aberatsaren bidez, eta protagonismoa ematea kuadrilla, udalerrri eta kontzejuei, baita energia-komunitateen figurari ere.
- e. Sorkuntza agrivoltaikoa sustatzea, nekazaritza-ekoizpena eta energia-sorkuntza bateragarri egiteko.

### 2. Eraginkortasun energetikoa:

- a. Eraginkortasun energetikoa sustatuko da lurraldeko esku-hartze guztien printzipio gisa, energia hobeto aprobetxatuko duten alternatibak, ez kontsumitzea eta hondakin-energien aprobetxamendua lehenetsiz.
- b. Hiri-eredu trinkoa eta erabilera-nahasketa izango duena bultzatuko da, joan-etorri motordunak minimizatuko dituen eta energia-gastu globala eraginkorragoa egingo duena.
- c. Kanpoko argiteria publikoaren sistemen eraginkortasuna sustatuko da, eta argiteriek eguzki-energia hartzeko sistemak izan ditzaten erraztuko da, betiere paisaia integrazteko aukera ematen badute.

### 3. Sorkuntza berriztagarriko sistemak eta elektrizitatea garraiatzeko sareak kokatzeko irizpideak:



- a. Araudi honen 2. eranskin gisa sartu dira lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarriak ezartzeko irizpide orokorrak. Irizpide horien ordez, indarrean sartzean Energia Berriztagarrien LPSak ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira, LAGak aplikatzeko arauen 16.5 artikuluan aipatzen direnak. Hiri-lurzorueta eta lurzoru urbanizagarrietan, sorkuntza berriztagarriko ahalmena maximizatzea bultzatuko da, teknologia egokienaren bidez, kokapena kontuan hartuta, betiere paisaia integratzeko irizpideak kontuan hartuta.
- b. Autozozioaren elektrifikazioak sarearen konfigurazioetan sor ditzakeen eraginak hartuko dira kontuan.
- c. Kasu hauetan, energia iturri berriztagarrietatik sortzeko instalazioak eduki beharko dira, zuzenean zerbitzatutako erabileretarako kanpoko energia-ekarpenen beharra ahalik eta gehien murrizteko. Sarera konektatzea komeni da, erabili ez den edukiera sarera isuri ahal izateko; EKT HE betiere beteko da:
  - i. 200m<sup>2</sup>-tik gorako oinplanoko lurzoru urbanizaezinean egindako eraikuntza berri oro. Betebehar hori gomendagarria izango da azalera txikiko eraikuntzetarako eta lehendik daudenetarako.
  - ii. Teknikoki posible den edozein azpiegitura berri.
- d. Autokontsumorako instalazioak, edozein lurzoru-motatan kokatuko direnak, betiere eraikuntzan bertan, lurzati berean edo kontsumo-puntuak kokatuta dauden lurzatiaren mugakide batean badaude, zerbitzua ematen dieten eraikinen erabilera osagarritzat hartuko dira, eta beraz, eraikinen gainerako zerbitzu-instalazioen antzera baimenduko dira, hirigintza-planeamenduak egokitu beharrik gabe. Erabilera nagusiaren erabilera lagungarriak direnez, ez da beharrezkoa erabilera hori herri-onurakotzat jotzea.
- e. Kasu hauetan, energia iturri berriztagarrietatik sortzeko instalazioak izatea gomendatzen da, zuzenean zerbitzatutako erabileretarako kanpoko energia-ekarpenen beharra ahalik eta gehien murrizteko. Sarera konektatzea komeni da, erabili ez den edukiera sarera isuri ahal izateko. EKT OD-HE-aren arabera:
  - i. Lurrazaleko automobilentzako edozein aparkaleku, bereziki berriak, 100 m<sup>2</sup>-tik gorakoak.
  - ii. Teknikoki bideragarria den eta kultura-balioak edo beste izaera batekoak babestearen ondorioz mugarik ez duen edozein berrikuntza edo birgaitze.

#### 4. Lurralde- kokapena:

- a. Araudi honen 2. eranskin gisa sartu dira lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarriak kokatzeko irizpide orokorrak. Irizpide horien ordez, indarrean sartzean Energia Berriztagarrien LPSak ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira, LAGak aplikatzeko arauen 16.5 artikuluan aipatzen direnak.
- b. LPPak autokontsumorako ez diren energia fotovoltaikoetarako instalazioen lehentasunezko kokaleku eremuak (LKE) ORD.5 planoan zehaztutako lurzoruak ezartzen ditu. Izaera horrekin planteatzen dira, halaber, lehentasunezko interesa

-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

du ten autobide, autobide eta errepideen zortasun- eta afekzio-eremuak (baldin eta aztertutako ertzean ez badago bizitegi-nukleorik eremu horietatik 500 m baino gutxiagora, eta ez badira Balio Estrategiko Altuko lurzoruak), bai eta ureztatze-putzuak eta beste ur-azalera batzuk ere, betiere beharrezko baldintza teknikoak eta ingurumenekoak betetzen badituzte. Zehazki, errepideen eta azpiegituren kasuan, instalazioak ez du eragotziko errepideen funtzionamendu egokia, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauarekin bat etorriz; ureztatze-putzuen eta bestelako ur-xafleren kasuan, ezingo da estali xaflaren azaleraren % 30 baino gehiago.

- c. LPPak, halaber, Badaia eta Elgea-Urkillako parkeak indartzea planteatzen du, LPP honek enegia eolikoa sortzeko proposamen gisa.
- d. LKEetatik kanpo, autokontsumorako ez diren instalazioak ezingo dira kokatu hiriguneetako edo landaguneetako bizitegi-lurzoruetatik 500 metro baino gutxiagora.
- e. LAGetako 16.artikuluari aurreikusten den Energia Berriztagarrien LPSak ezar ditzakeen mugez gain, Kanpezu, Lantarón, Barrundia eta Donemiliagako udalerrietako ikusizko arroetan lurzoru urbanizaezinean instalatuko diren autokontsumokoak ez diren instalazio fotovoltaikoek, LPSak berak hauta ditzakeen eremuak barne, ezin izango dute ikus-arroaren azalera hau baino handiagoa hartu, eremu funtzionalako arroaren azalerari dagokionez:

Arroaren kodea	Ikusmen-eremuaren izena	Ikusmen-arroa zein udalerritan dagoen	Azalera (hektareak) Araba Erdialdean	Arroa okupatzeko muga
21	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantzi, Barrundia, Elburgo / Burgelu, Iruraiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz, Arraia-Maeztu, Bernedo	8.168,17	10%
28	Alto Cruz	Lantarón	171,06	14%
49	Antoñana	Campezo / Kanpezu	531,52	6%
55	Arana	Arraia-Maeztu, Campezo / Kanpezu, Entzia elkarrekikoa / Parzoneria de Entzia, Harana / Valle de Arana	2.833,81	2%
59	Aratz	Asparrena, San Millán / Donemiliaga, Zalduondo	1.563,13	3%
79	Arreo	Añana, Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	483,19	1%
100	Azaceta	Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Arraia-Maeztu, Bernedo	851,57	8%
104	Bachicabo	Lantarón, Valdegovía / Gaubea	749,60	11%
117	Barrio	Lantarón, Valdegovía / Gaubea	436,95	6%
131	Berguenda	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón, Valdegovía / Gaubea	633,81	9%
145	Bujanda	Arraia-Maeztu, Bernedo, Campezo / Kanpezu	677,60	1%
148	Caicedo-Yuso	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	613,82	12%
149	Caicedoko erreka	Lantarón	399,62	11%
150	Kanpezu	Bernedo, Campezo / Kanpezu	4.078,36	7%
166	Comunion	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón, Ribera Baja / Erribera Beitia	510,80	7%
172	Cruz Egarda	Iruraiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Arraia-Maeztu	494,15	14%

-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

Arroaren kodea	Ikusmen-eremuaren izena	Ikusmen-arroa zein udalerritan dagoen	Azalera (hektareak) Araba Erdialdean	Arroa okupatzeko muga
176	Deba Cabecera	Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo / Burgelu	26,79	9%
185	Egino	Asparrena, San Millán / Donemiliaga, Entzia elkarrekikoa / Parzonería de Entzia	1.903,95	4%
198	Lagoko erreka	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	555,97	12%
225	Espejo	Añana, Lantarón, Valdegovía / Gaubea	1.925,03	10%
226	Etxabarri	Agurain / Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Barrundia, Elburgo / Burgelu, Iruiaiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga	5.234,11	8%
229	Fontecha	Lantarón	330,26	1%
284	Izkiz	Arraia-Maeztu, Bernedo, Campezo / Kanpezu	5.611,76	1%
299	La Mota	Lantarón, Valdegovía / Gaubea	657,55	9%
301	La Muera	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón, Valdegovía / Gaubea	262,97	13%
313	Laminoria	Iruiaiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Arraia-Maeztu	291,98	15%
317	Lantaron	Lantarón	506,37	8%
338	Leciñana del Camino	Lantarón	244,30	9%
354	Lomba Cuerno del	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	129,93	13%
392	Mojabroso	Asparrena, San Millán / Donemiliaga	2.146,31	13%
393	Molinilla	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	443,75	9%
395	Mondaliendres	Bernedo, Campezo / Kanpezu	145,36	5%
412	Narbaxa	Agurain / Salvatierra, Asparrena, Barrundia, San Millán / Donemiliaga, Zalduondo	1.337,76	9%
436	Opakua	Agurain / Salvatierra, Asparrena, Iruiaiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Arraia-Maeztu, Entzia elkarrekikoa / Parzonería de Entzia	2.578,23	6%
450	Oteo	Arraia-Maeztu, Campezo / Kanpezu, Harana / Valle de Arana	1.042,30	8%
455	Ozaeta	Barrundia, San Millán / Donemiliaga	6.193,91	12%
490	Renejaseko troka	Lantarón, Valdegovía / Gaubea	768,87	5%
494	Ribabellosa	Armiñón, Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón, Ribera Baja / Erribera Beitia	1.508,12	9%
495	Rudopioko erreka	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	695,26	10%
496	Sabando	Arraia-Maeztu, Campezo / Kanpezu, Harana / Valle de Arana	1.548,96	8%
497	Salcedo	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	183,48	9%
501	Agurain	Agurain / Salvatierra, Asparrena, Iruiaiz-Gauna, San Millán / Donemiliaga, Zalduondo	6.745,78	8%
510	San Migel	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	590,57	7%
530	Somo	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	120,04	4%
543	Turiso	Lantarón	244,19	11%
549	Ulibarriko urtegia	Legutio, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo / Burgelu, Vitoria-Gasteiz	4.738,41	8%
598	Villabezana	Erriberagoitia / Ribera Alta, Lantarón	305,08	10%
603	Vitoria-Gasteiz	Zigoitia, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo / Burgelu, Iruña Oka / Iruña de Oca, Vitoria-Gasteiz	16.803,25	4%

- f. Nolanahi ere, LPP honetan definitutako LKEak aplikagarriak izango dira, LAGen 16. artikuluan aurreikusitako Energia Berriztagarrien LPSak ezar ditzakeen mugak alde batera utzita.

5. Hiri-plangintza:

- a. Energia kontserbatzeko eta aurrezteko jarduerak sustatuko dira, energia sortzen eta kontsumitzen duten instalazioak berrituz eta modernizatuz, eta eraikinen eta instalazioen isolamendu termikoa hobetuz.
- b. Energia berriztagarriak biltzeko instalazioen erabilera-nahasketak bultzatuko dira, sistema orokor gisa duten kalifikazioa edozein dela ere, energiaren produkzioarekin bateragarri eginez, eta teknikoki posible denean nekazaritzako produktibitatea elektrizitatea sortzearekin batera egotea erraztuko da. Horretarako, sistema agriboltaikoak erabili ahal izango dira, klima-aldaketara hobeto egokitzeko, muturreko gertaera klimatikoetatik babesteko, labore espezifikotarako hobekuntza agronomikoa lortzeko, edo animalien ongizatea hobetzeko. Horretarako, ustategia eratu ahal izango da, laboreak edo larreak eguzki-panelen azpian edo panel-lerroen artean jarrita, nekazaritza-azalera efektiboa ahalik eta gutxien galtzen saiatuz, jatorrizko azaleraren % 15 ez gainditzea gomendatzen baita.
- c. ORD 5- Baliabideen kudeaketa jasangarria planoan, baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak islatzen dira, energiaren arloan ezarritako helburuak betetzeko behar adinako kopuruan eta gaitasunean. Hirigintza-plangintzak bateragarritzat joko ditu gutxienez honako eremu hauetan energia berriztagarriak sortzeko erabilera eta eremu bakoitzerako adierazten diren baldintzak:
- Energia Berriztagarrien LPSean aurreikusitako kokapen hautatuak, arlo funtzionalak arlo horretan EAE osoari egiten dion ekarpena.
  - Lehentasunezko kokapeneko ORD.5 planoan adierazitako eremuak (artikulu honen 4.b atalean adierazitakoak).
  - Artikulu honetako 3.a. paragrafoan adierazitako eremuak.
- d. Hirigintza-plangintzak honako hau sustatuko du:
- Lehendik dauden eraikinen eta espazio urbanizatuen energia-eraginkortasuna hobetzea, bai eta eraikinek, auzoek eta hiriek energia-autosufizientziarako sistemarik onenak izatea ere.
  - Irizpide bioklimatikoak erabiltzea eraikin eta espazio publikoen plangintza-, proiektu- eta gauzatze-faseetan, bereziki orientazioari, diseinuari eta materialei dagokienez, bai eta energia-kontsumoa minimizatuko duten sistema pasibo eta aktiboen erabilerari dagokienez ere.
  - Eraikin eta espazio publikoetan landaredia erabiltzea isolamendu-elementu gisa eta urteko hainbat urtarotan klima-erosotasuna arautzeko faktore gisa.

- iv. Energiaren aldetik eraginkorrak diren argiteria publikoko gailuak erabiltzea.
  - v. Hiri-berrikuntzako, -berritzeko, -birgaikuntzako eta -berroneratzeko eremuetan eta garapen berriko eremuetan, energia-iturri berriztagarrien bidez, hiriko bero-sareen bidez, energia termikoa sortzeko eta banatzeko sistema zentralizatuak ezartzea.
  - vi. Petrolioaren deribatuen ordezeko energien bidez propulsatutako garraio-sistemak, adibidez, elektrizitatea eta gas naturala erabiltzen dutenak.
  - vii. Energia berriztagarriak sortzeko instalazioak kultura-ondarearekin behar bezala integratzea. ICOMOSEk egindako "Energia berriztagarriekin eta horiek kultura-ondarean izan dezaketen eraginarekin lotutako azpiegiturak eta ekipamenduak instalatzeko Jardunbide Egokien Gida"-ren irizpideak aplikatzea gomendatzen da.
- e. LKEak zuzenean geratzen dira hirigintza-plangintzan txertatuta LPParen behin betiko onarpenarekin, eta beraz, energia berriztagarrien erabilera zuzenean onargarria da. Eremu horietan proposatzen diren instalazio fotovoltaikoek ez dute garapen-plangintzarik beharko.
6. Elektrizitatea garraiatzeko lineak ezartzea:
- a. Energia elektrikoa garraiatzeko sarearen plangintza kontuan hartuko da, eta bertan jasotako instalazioak kokatzeko behar diren lurzoru-erreserbak egingo dira. Garraio-sare horrek gaitasun nahikoa aurreikusi beharko luke EAEn sortutako energia isurtzeko.
  - b. Instalazioetan sortutako energia ahal izanez gero lurpean hustuko da, sarera isuri arte.
  - c. Instalazioetan lurzatiaren itxiturak iragazkorrak izan daitezzen kontuz ibili beharko da, lehendik dauden ibilbideak, fauna-ibilbideak eta lehendik dagoen landaredia integra daitezzen, baldin eta landaretza hori handia bada eta ez badu modu erabakigarrian oztopatzen.
  - d. Lehentasuna emango zaio garraio elektrikoko lineak kokatzeari ORD 5-Baliabideen kudeaketa iraunkorra planoan adierazitako korridoreetan. Kasu horietan, lerro horiek iragazkortasun ekologikoan eta, oro har, ekosistemen zerbitzuetan duten eragin metatua aztertuko da.
  - e. Oro har, instalazioen ibilbideak erliebearen kota topografikoak jarraituko ditu eta luraren morfologiara egokituko da.
  - f. Ahal den heinean, lehendik dauden komunikabideetatik, errepideetatik, trenbideetatik eta abarretatik ibilbide paraleloa eta distantzia laburrera egingo dute, lurraldearen zatiketa areagotzea saihestuz.
  - g. Lehentasuna emango zaie naturagune babestuei eta korridore ekologikoei eragitea saihesten duten garraio elektrikoko lineen trazadura berriei, eta haien trazadurak espazio horiek zeharkatzea onargarritzat joko da soilik beste aukera bideragarririk ez badago eta NBAPen esparruan posible bada. Azterketa hori

egin ondoren ondorioztatzen bada trazadurak espazio horiek zeharkatu behar dituela, lurpean egingo du.

- h. Hurbileko beste linea batzuk daudenean, daudenak bikoizteari emango zaio lehentasuna, linea berri bat eraiki aurretik.
- i. Euskarrien diseinuak kontuan hartuko du paisaia-inpaktua minimizatzea faktore erabakigarria dela, lurrari egokituta eta lur-berdinketen eta -mugimenduen beharra murriztuta.
- j. Natura babesteko edozein figuratan sartutako eremuetatik edo korridore ekologikoetatik igarotzen diren linea elektrikoek, segurtasunari buruz indarrean dagoen araudiaz gain, hegaztiak babesteko beharrezkoak diren gailuak ere izan beharko dituzte.
- k. Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzeko beharra justifikatu beharko da, linea zaharrak ezabatzeko alternatibak aztertuz, eta lehendik dauden korridoreak (lineak trinkotzea) edo ingurumen-inpaktuak ezabatzea edo mugatzea dakarten beste linea batzuk aprobetxatuz.

## 26. artikulua Ekonomia zirkularra: hondakinen kudeaketa, ekipamenduak eta azpiegiturak

1. LPPk ekonomia zirkularren arloan dituen helburuak honako hauek dira:
  - a. Euskadiko 2030erako Ekonomia Zirkularren Estrategia eta azaroaren 21eko 20/2018 Foru Araua, Arabako 2017-2030erako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana garatzea.
  - b. Sistemen partzuergo-kudeaketa hobetzea, Arabako hiri-hondakinak koordinatzeko organo batekin, dagoen azpiegitura hobetzearekin eta azpiegitura berria sortzearekin.
2. Hirigintza-plangintzak kontuan hartuko ditu lehendik dauden azpiegiturak hobetzeko eta Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planean ezarritako azpiegitura berria sortzeko beharrak, eta, bereziki:
  - a. Garbigune berriak sortzea.
  - b. Hiriko/erdihiriko garbigune finakoak eraikitzea.
  - c. Reutilizaguneak sortzea.
  - d. Konpostaje-instalazioak sortzea, Lurralde Historikoan gaikako bilketatik datozen biohondakinak tratatzeko.
  - e. Tamaina handiko hondakinak tratatzeko azpiegiturak sortzea.

## 27. artikulua Ekonomia zirkularra: lurtzorua baliabide bezala

1. Hirigintza-plangintzak lehentasuna emango dio alde zuzeneko urbanizatutako lurzoruen berronertzeari, lurzoru urbanizagarri berriaren sailkapenaren aurretik, hori bideragarria denean, eta lurzoruen kontsumoa bere horretan utziko du, baliabide berriztaezinaren izaera kontuan hartuta.
2. Arindu egingo dira kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak aztertzeko prozedurak, eta kutsatuta daudela baieztatuz gero, kutsadura kentzeko lanak.

## 28. artikulua Zeharkako gaiak eta hiri-eredua

LPPk proposatutako hiri-eredua honako hauetan oinarritzen da:

1. Kokagune trinkoak eta kohesionatuak, eguneroko jarduera presentzialak garatzearen aldekoak, oinezkoen eta garraio publikoaren bidezko joan-etorriekin.
2. Irisgarritasuna eta hurbiltasuna, ekipamenduak eta espazio libreak eta eguneroko zerbitzu pribatuak (merkataritza, esaterako) kokatzeko eta konfiguratzeko irizpide gisa, betiere oinezkoen eta garraio publikoaren joan-etorrien lehentasuna kontuan hartuta.
3. Eraikitako hiri hobetzeari lehentasuna ematea, hiri-hedapenaren aurretik, betiere bideragarria bada. Halakorik balego, dagoen lurzoruarekiko proportzionatua den hiri-hedapena sustatzea.
4. Zaintzaren mugikortasuna sustatzea, zaintza espazio-plangintzaren printzipio gisa hartuta.
5. Espazio publiko seguruak eta aktiboki erabiliak sustatzea, erabilera anitzak eta erabiltzen dituzten pertsonen aniztasuna sustatuz.
6. Bizitegi-tipologiak dibertsifikatzea, premia berriei eta bizitzeko modu berriei erreparatuta.
7. Azpiegitura eta ekipamendu handiek lurraldearen zatiketaren duten eraginaren balorazioa, hizkuntza-afekzioak barne.
8. Oinezkoen mugikortasuna hiri- eta landa-azpiegitura berdean integratzea eta kultura-baliabideak eskuratzea sustatuko da, bizimodu aktibo eta osasungarriak bultzatuz.

## III. Kapituluak Gomendatzeko artikulua

### 29. artikulua Landa-habitata

1. Nekazaritza-sektorearen garapena helburu hauen arabera bideratuko da:
  - a. Baso-masen kontserbazio-egoera hobetzea eta espezieak dibertsifikatzea.
  - b. Trantsizio agroekologikoa garatzea ekoizpen-sistema ekologikoak indartuz, higadura kontrolatzeko, lurzoruaren emankortasuna hobetzeko eta nekazaritzak klima-aldaketa arintzen laguntzeko tresna gisa.
  - c. Birsortzeko nekazaritza eta abeltzaintza erraztea, jarduerarik gabeko baina nekazaritza-bokazioa duten lurzoruak erabiltzeko, eta, aldi berean, lurzoru osasuntsua lortzen laguntzea.
  - d. Elikagaien segurtasunean eta autosufizientzian lagunduko duten merkaturatze-kanal laburrak garatzea, eremu funtzionalako biztanleei hurbileko elikagaiak eskainiz, eta garraio bidezko berotegi-efektuko gasen emisioak mugatuz.
  - e. Basogintza- eta nekazaritza-lurraldeen zatiketaren prebentzioa, haien bideragarritasuna errazteko, haien isolamendua eta uhartetzea saihesteko, eta horien artikulazioa errazteko, batez ere hornidura-zerbitzu ekosistemikoak emateko azpiegitura berdearen zati gisa.
  - f. Emakumeek ustiatzearen erregistroko titulartasuna eskura dezaten sustatzea, bai eta ustiatzeak ustiatzeko laguntzak, ordainketak, ekoizpen-eskubideak edo ondorio baliokidea duten beste neurri batzuk ere, eta pertsona gazteak nekazaritza eta abeltzaintzako jardueran sartzea, jarduera berritzaileak sustatuz.
  - g. Arabako herrixken sarea indartzea, nagusiki lehen sektoreko ekoizpenari eta jarduera horiek egiten dituzten biztanleei ostatu eta zerbitzuak emateari lotutako





- iv. Ekintzaitetza bultzatzea, bai lehen sektorean, bai haren jarduera osagarriekin.
- v. Paisaia.
- vi. Euskararen sustapena.

### 30. artikulua Paisaia

1. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoko edukiak garatuko dira, LPP honetako zehaztapenen arabera.
2. Paisaiaren Katalogoak Paisaiaren Interes Bereziko Eremuen araberrako orientabideak zehazten ditu, ORD-4 Ondarea, paisaia eta baliabide turistikoak planoan islatuta. Udal-plangintza egiterakoan kontuan hartuko dira haren adierazpenak.
  - a. Antolamendu-ekintzak behar dituzten PIBEak, egungo balioei eta/edo etorkizuneko lurralde-dinamikei erreparatuta:
    - i. P2 Gasteizko Mendiak, Barga de Iturrieta eta Entzia
    - ii. P5 Aldaia eta Narbaizako Mendiak
    - iii. P11 Toloñoko Mendilerroa
    - iv. P3 Uribarri-Ganboa
    - v. P6 Tuyo Mendilleroa eta Pobes Mendia
    - vi. P8 Gorbeia
    - vii. P9 Elgeamendi eta Altzania
    - viii. P10 Badaia, Arkamu eta Gibillo
    - ix. P1 Arabako Lautadako Muinoak
    - x. P4 Añanako Gatzaga
    - xi. P7 Maturana Gebara
    - xii. P12 Portilla eta Ocio Mendilerroa
    - xiii. P13 Oroko Haitzak eta Urkabustaiz eta Zuiako Irla-Hariztiak
    - xiv. P14 Pradoko Sakana (Virgen de La Peña)
  - b. Azpiegitura berdeari eta haren zerbitzu ekosistemikoei dagokienez, paisaia naturala kontserbatzeko ekintzak behar dituzten PIBEak:
    - i. IV5 Jauden eta Semendiako Mendiak
    - ii. IV8 Kodesko Mendilerroa
    - iii. IV10 Valderejo, Gaubea/Gobia eta Arcenako Mendilerroak
    - iv. IV12 Lokizeko Mendilerroak
    - v. IV1 Gorbeia
    - vi. IV2 Izki eta Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria Hegoaldeko Isurialdea
    - vii. IV3 Elgeamendi, Urkilla eta Altzania
    - viii. IV4 Iturrietako Mendiak, Entzia eta Muelasko Mendilerroak, Maeztu/Maestu eta Campezo/Kampezu

- ix. IV6 Badaia, Arkamu eta Gibillo
  - x. IV7 Añana eta Bovedako Mendilerroa
  - xi. IV9 Berganzo eta Payueta/Pagoetako Mendiak
  - xii. IV11 Añanako Diapiroa eta Atalayako Mendiak, Somo eta Montemayor
- c. Paisaiaren kalitate eta hauskortasun handiaren ondorioz, ikus babesarako ekintzak behar dituzten PIBEak:
- i. G2 Valle de Valdegovía/Gaubea Bailara
  - ii. G5 Barrundiako Bailara
  - iii. G3 Kuartangoko Bailara
  - iv. G4 Lacoymonteko Korridorea
  - v. G6 Anotoñanako Bailara
  - vi. G7 Otxandioko Bailara
  - vii. G8 Fontechako Bailara
  - viii. G1 Vitoria-Gasteizko Eraztuna
  - ix. G9 Ebro Ibarra, Jugalez Ibaiaren Elkargunean (Inglares)
- d. Antolamendu-ekintzak behar dituzten PIBEak, egungo balioei eta/edo etorkizuneko lurralde-dinamikei erreparatuta:
- i. O1 Gasteizko Lautadako Hegoaldeko Sarbidea
  - ii. O3 N1 Korridorea (Agurain/Salvatierra)
  - iii. O4 N1 Korridorea (San Millán/Donemiliaga)
  - iv. O5 Araba Erdialderako Sarbidea Miranda de Ebrotik
  - v. O2 Zadorra Medio-Santa Catalina
3. Paisaiaren kalitate-helburuei lotutako eremuak kategoria operatiboetara eramateko, eskema hau hartuko da kontuan, paisaiaren kalitate-helburuak kontuan hartuta:
- a. Babes bereziko lurzoruak: honako hauen babesa sustatzea: esposizio handiko enklabeak, hondo eszenikoen enklabeak, paisaiako zuhaitz-masa bereziak, paisaia naturala (harritsu eta higagarria), nekazaritzako eta abeltzaintzako gune kulturalen ikusizko babesa, haitz eta muinoen ikusizko babesa eta kontserbazioa.
  - b. Azpiegitura berdeko lurzoruak: berdeguneak eta kultura-guneak egokitzea, lotura-guneen babesa sustatzea (AB), ibaiak eta erriberak babestea, kontserbatzea eta hobetzea, ibaiak, erriberak eta hezeguneak berreskuratzea eta babestea, eta berdegune bereziak babestea, kudeatzea eta zabaltzea.
  - c. Ondare kulturala: kontzejuen eta herrixken kontserbazioa sustatzea, balio eta hauskortasun handiko guneen ikusizko babesa, hiribilduen eta zentro historikoen babesa eta kontserbazioa, kultura-enklabeen ikusizko babesa eta kontserbazioa, industria-ondarearen berreskuratzea eta elementu horietarako irisgarritasun unibertsala, haien balioak babestera egokitutako irtenbideekin. Gune, hiribildu, zentro eta enklabeen babes bisualaren zehaztapena udal-plangintzan garatu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren Ondare Historikoaren Zerbitzuaren ondarea babesteko inguruneak definitzeko gida erreferentziatza hartuta.

- d. Ingurumen-hobekuntza: meatze-ustiategiaren paisaia-integrazioa, larre eta sastraken paisaia- eta ekologia-hobekuntza, baso-landaketen paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea.
- e. Udal-plangintzarako jarraibideak: etorkizuneko hiri-garapenen paisaia-integrazioa sustatzea, nekazaritza-azpiegituren ikusizko hobekuntza, potentziala duten industria-kokaguneak antolatzea, bisualki hauskorrak diren hiri-inguruko eremuak antolatzea.

## 31. artikulua Ondare kulturala

- 1. LPPk ORD-04 planoan jasotako elementu kultural hauek hartzen ditu barne, beren lurralde-interesagatik babestua:
  - a. Lurzoruaren sailkapena edozein dela ere:
    - i. Hiribilduak eta hirigune historikoak
    - ii. Balio handiko eta ikusmen-hauskortasuneko nukleoak
    - iii. Enklabe kulturalak
  - b. Lurzoru urbanizaezinean kokatutako elementu hauek:
    - i. Arkeologia-ondasunak
    - ii. Donejakue Bideari lotutako ondasunak
    - iii. Iter XXXIV Bide Erromatarra eta Iruña Veleia hiri erromatarra
    - iv. Zadorrako arroako zubiak eta beste zubi batzuk
    - v. Kobazulo artifizialak
    - vi. Erlijio-ondasunak
    - vii. Arkitektura zibila
    - viii. Industria-ondareko ondasunak, harrobi historikoak barne
    - ix. Asfalto naturaleko meatze-paisaiak
    - x. Kultura-balioa duen natura-ondarearen elementuak
- 2. ORD-04 planoak, LPPren berezko eskala-mugekin, udalaz gaindiko eskalan garrantzia duten kultura-balioko elementuak islatzen ditu. Nolanahi ere, aplikagarriak dira Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen zehaztapenak eta hura garatzen duen araudia, eta, hirigintza-plangintzaren ondorioetarako, kontuan hartu behar dira Euskal Kultura Ondarearen Zentroan jasotako ondasunen zerrendak.
- 3. Euskara lurraldeko kultura-ondare immaterialtzat jotzen da.
- 4. Udal-plangintzak ondasun horiek babesteko baldintzak zehaztuko ditu, irizpide hauen arabera:
  - a. Lurralde-ondarearen kontzeptua plangintzan sartzeari, natura-, kultura- eta paisaia-elementuak modu bateratuan integratuz eta kudeatuz.
  - b. Elementuei balioa ematen laguntzea, sistemen ikuspegitik, genero-ikuspegia txertatzearen ikuspegitik eta lurraldearen benetako konfigurazioan parte-hartze inklusiboa izatearen ikuspegitik.
  - c. Kultura-baliabideen eta turismoaren balioa nabarmentzea, araudi honen 35.2 artikuluan mugikortasun horretarako zerrendatutako ibilbide egituratzaileen bidez. Ibilbide horiek irisgarritasun unibertsalaren irizpideei jarraikiz diseinatu

beharko dira, betiere haien babesera eragiten duten balioen kontserbazioa kontuan hartuta.

- d. Ondasunaren eta haren lurralde-ingurunearen arteko harremana islatzea, bai haren babesean, bai haren inguruko erabilera-antolamenduan eta -programazioan.
  - e. Ondasuna jatorrizko lekuan mantentzea, ezinbesteko eta interes sozialeko kasuetan izan ezik, hala nola klima-aldaketaren inpaktuetara egokitzeko beharrea.
  - f. Ondasuna osorik babestea.
  - g. Hirigintza-plangintza egiteko eta, oro har, kultura-paisaian eta paisaiaren kultura-ondareko elementuetan esku hartzeko, kontsulta egin eta txostena eskatu beharko zaie Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroari eta dagokion foru-aldundiko Kultura Sailari, legean ezarritakoaren arabera.
5. Udal-plangintzak ondare immaterialeko ondasunei lotutako espazioak eta elementuak babesteko babes-neurri egokiak identifikatu eta ezarriko ditu.

### 32. artikulua Ondare naturala

1. Araba Erdialdeko natura-ondarea honako kategoria hauek osatzen dute: ingurumen-balioengatik babestutako espazioen kategoriak, funtzio anitzeko natura-intereseko beste espazio batzuen kategoriak eta LPP honen 12. artikuluan definitutako sare urdinaren kategoriak (azpiegitura berdean sartzeari buruzkoa). Jolas-eremuak, Garaio eta Landako parke probintzialak eta Mendixurko Parke Ornitologikoa hartzen ditu barnean.
2. Hirigintza-plangintzak tresnak ezarriko ditu natura-ondarea garapen sozioekonomikoaren ereduarekin bateragarria den aktibo bihurtzeko.
3. Lurraldea zaintzeko akordioen garapena sustatuko da, kudeaketa-moduen tradizioa aprobetxatuz, hala nola kontzejuak.

### 33. artikulua Baliabide turistikoa

1. LPPren turismo-baliabideen arloko helburuak honako hauek dira:
  - a. Gasteizen hiri-turismoa sustatzea, bere potentziala aprobetxatuz, trenbide-komunikazioetan aurreikusitako hobekuntzei, ondare-aberastasunari eta Eremu Funtzionala eta Euskadi osoa bisitatzeko ate izateari esker, duen zentraltasunagatik.
  - b. Naturan, kulturen eta paisaian oinarritutako landa-turismo jasangarria sustatzea, kuadrilla bakoitzean lurraldearen ezaugarri espezifikoak kontuan hartuko dituen lurraldearen gozamen aktiboko eredu baten bidez.
  - c. Aurreko bi baliabideek eremu funtzionalaren garapen orekatuari ekar diezazkioketen aukerak sustatzea.
2. Vitoria-Gasteizen kasuan, hirigune historikoarekin eta hiriburu-izaerarekin lotutako hiri-eta kultura-turismoa bultzatuko da, bai eta eraztun berdearekin eta inguruko ondare irisgarriarekin duen harremana ere.
3. Landa-turismoa sustatuko da oinezkoen eta bizikleten mugikortasun-sarean oinarrituta, kultura- eta natura-ondarera iristeko modu gisa, eta honako elementu hauek nabarmenduko dira, kultura- eta natura-ondare gisa aipatutakoak barne hartzen dituen ikuskera globalaren barruan:

- a. Gorbeialdeako Kuadrilla: Kuartangoko ondare megalitikoa, Oroko Andra Mariaren Santutegia, Ardoaren eta Arrainaren Bidea.
- b. Arabako Lautadako Kuadrilla: Donejakue Bidea eta Ignaziotar Bidea, Ardoa eta Arrainaren Bidea, Vasco-Navarro trenbidearen ibilbide berdea, Agurain/Salvatierrako multzo historikoa eta Aizkomendi eta Sorginetxeko ondare megalitikoari probetxu atera.
- c. Arabako Mendialdeko Kuadrilla: Donejakue Bidea eta Ignaziotar Bidea, Ardoa eta Arrainaren Bidea, Vasco-Navarro trenbidearen ibilbide berdea eta Markinezeko kobazulo artifizialen sistema.
- d. Arabako Haranen Kuadrilla: Donejakue Bideari, Añanako Diapiroa eta Gatz Haranari eta La Mina eta La Lastrako trikuharriak.

### 34. artikulua Mugikortasun multimodala

#### 1. Mugikortasun multimodalaren arloko helburuak:

- a. Banaketa modalean oreka berri bat lortzea, jasangarrienak lehenetsiz errekuntza-motorra duen ibilgailu pribatuaren ohiko protagonismoaren aurrean.
- b. Lehentasuna ematea oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari eta pertsonentzako garraio publiko edo kolektiboari, bai eta trenbideari ere, eredu logistiko eraginkor eta eskalagarri baten oinarri gisa.
- c. Garraibideen plangintza integrala bultzatzea, teknologia berrien bidez eskaintza eta eskaria orekatzeko, bikoiztasunak murrizteko, zerbitzuaren estaldura handitzeko eta ikuspegi ez-funtzional berrietatik egin daitezkeen ekarpenak txertatzeko, hala nola genero-ikuspegitik, irisgarritasunetik eta mendekotasunetik, segurtasunetik edo beste desplazamendu-modu batzuekiko elkarreraginetik datozenak.
- d. Garraio publikoa pixkanaka modernizatzen eta elektrifikatzen laguntzea, klima-aldaketaren aurkako borrokari lotutako helburuetan are gehiago laguntzeko.
- e. Plangintza integratzaile baten alde egitea, oro har mugikortasun-planetatik abiatuta. Plangintza horretan, garraibideak koordinatzeko beharrezko neurriak ezarriko dira (disuasio-aparkalekuak, geltoki intermodalak, bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbideen sarea, hiriko tranbiak, aireportuetarako eta hiriguneetarako anezkak, etab.).

#### 2. Jarduera-ildoak:

- a. Intermodalitatea sustatzea Vitoria-Gasteizko etorkizuneko tren-geltokian. Geltoki hori pasabide gisa sortu beharko da, eta lurpean, berriz, hirigunean, Madril-Paris ardatzean. Era berean, Vitoria-Gasteizko autobus-geltokiaren intermodalitatea sustatuko da, eremu funtzionalako kanpoko eta barruko konexioen arteko lehen mailako nodo gisa.
- b. Sarearen kudeatzaileekin eta operadoreekin ituntzea Gasteiz eta Iruñea lotzen dituen distantzia ertaineko trenbide-konexioa indartzea, trenbide-azpiegitura modernizatuz eta igarotzeko maiztasun handiagoko programa bat ezarri, Agurainen, Dulantzin, Gasteizen eta Langraiz Okan programatutako ordutegia eta geralekuak dituzten tren berriak sartuz, horiek baitira beren lurraldeetako erakargarriak.
- c. Nodo intermodalak: azpiburuen eta nukleo artikulatzaileen sustapena bultzatuko da, kokagune horietako garraio publikoko geralekuen inguruan nodo

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

intermodalak eratuz. Horietan, garraibide osagarri ugari izango dira, haientzako zerbitzuekin: alokairua, tailerrak, karga-puntuak, etab. Nodo intermodalak bi jarduera-eremutan sortuko dira:

- i. Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzeko gunen nagusiak, ardatz hori Planaren eremuan mugikortasun iraunkorra egituratzeko lehentasunezko elementu gisa sustatzea ahalbidetuko dutenak (Gasteiz, Langraiz Oka, Dulantzi eta Agurain).
  - ii. Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzeko garraio-nodo intermodalen sarearen osagarria, beste herri batzuetako nodoekin, hiri-mugikortasunaren sarea osatzea ahalbidetuko duena garraio publikoko hiriarteko mugikortasunaren eraketan (burualdeko nukleoak, azpiburua eta artikulatzaileak).
- d. Eremu funtzionaleko trenbide-sarean dauden trenbide-pasaguneak kentzeko gida-jarduerak bultzatzea.

## 35.artikulua Oinezkoen eta bizikleta bidezko mugikortasuna

### 1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloko helburuak:

- a. Arabako Bizikleta-Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSren aurreikuspenak garatzea, eguneroko ibilbideetarako zein turismo-, kirol-, aisialdi- edo antzeko beste erabilera batzuetarako egokia eta erakargarria izango den sare bat eratuz, ibilbide bereziak barne hartuta, hala nola Donejakue bidea, Ignaziotar bidea, Vasco-Navarro trenbidearen bide berdea, eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea.
- b. Eskaria sortzen duten nodo nagusiak (bizileku, lan, ikasketa eta abarreatatik) ibilbide ertain eta luzeko joan-etorrietarako mugikortasun iraunkorreko irtenbideen eskaintza gisa erantzuten duten nodoekin lotzea (tren-geltokiak, tranbien geltokiak, autobus-lineen ibilbideak, ibilbide eta bide historikoak, eta abar). Konponbide horietarako oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbidea errazteak, irisgarritasun-baldintza onetan eta ibilbide atseginekin, ibilgailu pribatuaren eta hain iraunkorrak ez diren beste irtenbide batzuen alternatiba gisa haien erabilera sustatu eta finkatuko da.
- c. Udaletako hirigintza-planen berrikuspenaren esparruan, batez ere, bizikleten eta oinezkoen mugikortasunaren analisisa eta diagnostikoa sartzea, ondoren bidezkoak diren helburuak eta neurriak proposatzeko oinarri gisa, interes berezia jarriz dagoeneko eraikita dagoen hiri-espazioan eta etorkizuneko hirigintza-eraldaketa jarduketetan esku hartzeko.
- d. Ibilguen ondoan doazen bizikleta- eta oinezkoentzako ibilbideak diseinatzea, ertzak berronertzeko edo lehengoratzeko behar adina espazio uzteko moduan; horrela, landa-ingurunean eta hiri-ingurunean, ahal denean, ibaiak eta ibaiertzak dagozkien habitata berreskuratzeko dituzte eta konektibitate-funtzioak hobetuko dituzte.

### 2. Mugikortasun turistikorako ibilbide egituratzailetzat hartzen dira, lurraldea antolatzen duten gaitasunagatik:

- a. Ignaziotar Bidea
- b. Donejakue Bidea
- c. Lautadako Bira
- d. Vasco-Navarro Trenbidearen Bide Berdea

- e. Ardoaren eta Arrainaren Bidea
  - f. Ebroko Bide Naturala
3. Arabako Bizikleta-Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSren zehaztapenak onartu dira; izan ere, bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen sarea honako elementu hauek osatzen dute Araba Erdialdean:
- a. Existitzen diren bizikleta-bideak:
    - i. VC1 – Durana - Arroiabe
  - b. Planifikatutako bizikleta-bideak:
    - i. VC2 - Vitoria-Gasteiz – Parke Teknologikoa
    - ii. VC3 – Urbina - Legutio
    - iii. VC4 – Vitoria-Gasteiz – Etxabarri-Ibiña
    - iv. VC5 – Vitoria-Gasteiz – Langraiz Oka
    - v. VC6 – Alegria-Dulantzi – Elburgo/Burgelu
    - vi. VC8 – Ribabellosa – Miranda de Ebro
  - c. Katalogatutako existitzen diren bide berdeak:
    - i. IV1- Uribarri-Ganboa urtegiko bira
    - ii. IV3- Vasco- Navarro ibilbidea
    - iii. IV4- GR120 Erromes bidea- Inaziotar bidea
    - iv. IV5- Posten erregebidea
    - v. IV6- Zabalate eta Lanos gazteluen ibilbideak
    - vi. IV7- Betoñu Haitzeko basabidea
    - vii. IV8- Mendixurko Parke Ornitologikoaren zidorren sarea
    - viii. IV9- Arabako Mendialdeko ibilbide zirkularra
  - d. Katalogazio-fasean dauden existitzen diren bide berdeak
    - i. IV11- Vitoria-Gasteizko eraztun berdea
    - ii. IV12-GR1- Bide historikoa
    - iii. IV13- GR25- Arabako Lautadako bira mendi magalean
    - iv. IV14- GR-38- Ardoaren eta Arrainaren Bidea
    - v. IV15- GR-99- Ebroko Bide Naturala
    - vi. IV16- Artzaintza naturbidea
    - vii. IV18- Errmoes Bidea- Donejakue Bidea
    - viii. IV19- Opakuako basabidea
    - ix. IV20- Berantevillako basabidea
    - x. IV21- Gesaltza Añana eta Lakuko Ibilbideak
    - xi. IV23- Zadorrako ibilbide berdea
    - xii. IV25- Ehunka urteko haritzak eta Zadorrako iturriak
    - xiii. IV26- Jugalez ibaiaren Uraren Bidea
  - e. Planifikatutako bide berdeak





-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- i. N-622 eta A-624, Amurrio eta Balmasedarekin
  - ii. A-1 eta A-2622, Vitoria-Gasteiztik Valdegoviara
  - iii. A-132, Vitoria-Gasteiztik Kanpezura
  - iv. A-3126 eta A-3130, Zambrantatik Urizaharra, Bernedo eta Kanpezura
  - v. A-126, A-2126, A-132, NA-743 eta A-3228 Kanpezu eta Guardia artean
  - vi. N-240, Gateiztik Igorre eta Amorebietara
- d. Paisaia-interesa duten Vitoria-Gasteiztik Urizaharra eta Guardiarako bidea.
3. Hurrengo ekintzak planteatzen dira:
- a. N-104 eta A-132 errepideen arteko lotura, Arkaute parean.
  - b. Egokitzapenak A-126 errepidean, Bernedo, Nafarroako muga Angostinan eta Santikurutze Kanpezu artean.
  - c. Trazadura egokitzea eta hobetzea edo plataforma handitzea A-2122, A-2126, A-2128, A-2622 eta A-2625 errepideetan.
  - d. Saihesbideek ordezkatu dituzten errepide-zatiak herri barruko bide bihurtzea.
4. Trazadura berriko eta lehendik dagoen sarea hobetzeko jarduketek ahalegina egingo dute azpiegitura paisaian integratzeko eta jarraitutasun ekologikoa babesteko irizpideak aplikatzeko, lurraldearen zatiketa minimizatuz.
5. Eremu Funtzionaleko errepideetan zarataren aurkako babes-panelak instalatzea bultzatuko da, hiriguneetatik eta ingurumenaren ikuspegitik sentikorrek diren guneeetatik hurbil igarotzen badira. Jarduketei lehentasuna emango zaie, eragindako biztanleriaren tamaina, bidearen zirkulazio-intentsitatea eta eragiten duen soinu-maila kontuan hartuta.
6. Lurralde historikoko errepideen babes-eremuetan egin nahi den edozein jarduerak (zuhaitzak eta landaredia ezartzea, etab.) Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritzaren nahitaezko baimena izan beharko du, erabiltzaileen bide-segurtasuna inola ere ez dela kaltetuko kontuan hartuta. Zelaigunean edo errepideen jabari publikoko eremuan, debekatuta dago landaketak egitea, eta errepideen hiriarteko tartekak hobetu eta egokitzeko eremuetan, bai errepidearen azpiegiturek hartzen duen eremua, bai jabari publikoko eremua, bide-segurtasunari eragiten dion oztoporik gabe geratu beharko dira, indarrean dauden araudi eta legeria sektoriala betez.

### 37. artikulua Trenbide- eta aireportu-mugikortasuna eta logistika

1. Trenbideko eta aireportuetako mugikortasunaren eta logistikaren arloko helburuak:
  - a. Bidaiarien eta salgaien garraioan trenbide- eta aire-moduen parte-hartzea hobetzea, eta portuekin lotutako fluxuak integratzea, bereziki Bilbokoa.
  - b. Etorkizuneko Jundizko geltoki intermodala aprobetxatzea, Frantzia iparralderantz doan korridore atlantikoko trenbide-autopistan sartzeko nodo gisa.
2. Jarduera-ildoak:
  - a. Trenbideak
    - i. Euskal Y-aren zati eraikiaren eta Gasteizko trenbide-sarearen arteko lotunearen bidez, EAeko hiru hiriburuen arteko trenbide-abiadura handiko konexioa osatzea. Trenbide-Sarearen LPSn jasotako

trazadurari buruzko eta trenbidea Gasteizen integratzeari buruzko informazio-azterlanak onartuta daude. Azpiegitura honen behin betiko konponbidea Kantauri-Mediterraneoko korridoreko Iruñea-Euskal Y tarteko informazio-azterlanetarako egiten ari den izapidearen arabera izango da.

- ii. Gasteizko abiadura handiko bidaiarien geltokia hiri-ingurunearekin behar bezala integratzea, azkenean eraikiko den irtenbidearekin.
  - iii. Gasteiz eta Burgos arteko abiadura handiko trenbide-konexioa osatzea, 2022an onartutako informazio-azterlanaren arabera.
  - iv. Jundizko geltoki intermodal berria bide-sarearekin behar bezala integratzea, salgaien trafikoaren bolumena kontuan hartuta, eta trenbide-autobidea martxan jartzea.
  - v. Administrazioen arteko hitzarmenen bidez, Langraiz Oka, Gasteiz eta Agurain arteko aldiriko zerbitzu berriak garatzea, lehendik dagoen bidetik, eta zerbitzuen eta tarifen integrazioa sustatzea, LAGetan ezarritakoaren arabera.
  - vi. Erabiltzen ez diren geralekuen berreskurapena sustatzea Miranda de Ebro-Bilbo lineetan, adibidez Izarran.
  - vii. Tranbia sustatzea, mugitzeko modu jasangarri gisa.
- b. Portuko logistika: Vitoria-Gasteizek Bilboko portuarekin duen harreman logistikoa erraztea.
  - c. Aireportuko logistika: Gasteizko aireportua indartzea kargako logistika-zentro handi gisa, beste aeronautika-zerbitzu batzuez gain.

## 38.artikulua Irisgarritasun unibertsala

### 1. Irisgarritasun unibertsalaren arloko helburuak:

- a. Dauden hiri-ehunen bilakaera eta etorkizuneko diseinua sustatzea, oinezkoek eguneroko erabileretara erraz iristeko irizpideei jarraiki, hala ekipamendu publikoak nola zerbitzu pribatuak eta enplegua, Gasteizen eta azpiburuetan eta nukleo artikulatzaileetan joan-etorri motordunen beharra minimizatuz.
- b. Hiri-ehun berriak lehendik daudenekin integratzen laguntzea, mugikortasun ez-motorizatuaren eta garraio publikoaren bidez.
- c. Landa-kokaguneen arteko harremanak diseinatzea eta, horretarako, komunikazio-sare bat sortzea, hiriguneen arteko ibilbide irisgarrien bidez eta, bereziki, bizitegi-ingurune sakabanatuen eta zerbitzu- eta ekipamendu-horniduren artean.
- d. Irisgarritasunaren diseinuan irizpide inklusibo bat aplikatzea.

### 2. Jarduera-ildoak:

- a. Eguneroko zerbitzuetarako oinezkoen gehieneko sarbidea bizitegi-eremuen hiri-berroneratze prozesuak diseinatzeko irizpideetan txertatzea.
- b. Landa-inguruneen ekipamendu publikoaren sareak diseinatzeko irizpideetan sartzea udalaz gaindikoa zerbitzuetara ibilgailu pribatuen iristeko gehieneko denbora.
- c. Ibilbideen diseinua adin-talde guztietarako ariketa fisikoa egitearen aldeko irizpideetara egokitzea, ezgaitasun-egoerak kontuan hartuta.

- d. Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuentzako aparkatzeko beharrak kontuan hartzea, hala nola bizikleta arruntak eta elektrikoak, patineteak eta bestelakoak.

### 39.artikulua Genero-ikuspegia

1. Hirigintza-plangintzak genero-ikuspegiaren eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren irizpideak txertatuko ditu, baliabideak eskuratzeari, eta lurraldea eta zerbitzu eta azpiegitura publikoak baliatzeari dagokionez, ordaindutako produkzio-lanean parte hartzea eta zaintza-lanak gizonen eta emakumeek partekatuta egitea erraztuz. Horretarako, hiri trinko eta erabileran anitzeko eredu bat bultzatuko da, oinezkoek eguneroko zerbitzuetara iristeko gehieneko denbora kontuan hartuta.
2. Garraio publikoko geltokien eta nodo intermodalen diseinua, bai eta horietan sartzeko ibilbide nagusiak ere, espazio publikoko segurtasun-irizpideak kontuan hartuta diseinatuko dira, eta diseinuan gizarte-taldearen segurtasun-gabeziaren pertzepzioa kontuan hartuko da.

### 40. artikulua Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea

1. Helburu orokorrak:
  - a. Klima-aldaketaren kausei eta ondorioei buruz eskuragarri dauden azterlanen emaitza sartzea, proposamenen bidez berotegi-efektuko gasen emisioen balantze garbia murrizten laguntzeko eta lurraldearen erresilientzia hobetzeko.
  - b. Klima-aldaketak EAEn dituen lehentasunezko eraginaren emaitzei heltzea: bero-boladak giza osasunerako, uholdeak hiri-ingurunean eta lehortea jarduera ekonomikoetan.
  - c. Klima-aldaketa udalerrien ikuspegia gainditzeko duen lurralde-ikuspegiarekin tratatzea.
  - d. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatzea, eta ekosistemen zerbitzuak kontserbatzea eta lehengoratztea, lurraldearen erresilientziari eusteko.
2. Arintze-orientabideak:
  - a. Anbizio handiko eta bidezko energia-trantsizioa bultzatzea, proposatutako ereduarekin bat etorriz eta Energia Berriztagarrien LPSrekin artikulatuz.
  - b. Mugikortasun iraunkorraren eta unibertsalaren eremuan aurrera egitea, trenbide-konexioak hobetzea barne.
  - c. Hiri-egitura trinkoa eta konplexua sustatzea, erabilerak nahastuz. Egitura horretan, auzoak birgaitzea eta berronertzea oso garrantzitsua da.
  - d. Naturan oinarritutako soluzioak aplikatzea, ekosistemen zerbitzuak kontuan hartuta, lurzoru osasuntsu batean eta landare-masetan karbono-hustubideak indartzeko.
  - e. Nekazaritza-eremuen kudeaketa aktiboa erraztea, jarduerak dibertsifikatuz, lotutako emisioak murrizteko.
  - f. Zuhaitz-mendien eta ematen dituzten zerbitzu ekosistemikoen aniztasuna eta iraupena bermatzea.
  - g. Ekonomia zirkularra sustatzea, baliabideen kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko.
3. Egokitzapen-orientabideak:

-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- a. Arrisku-eremuak identifikatzea muturreko temperaturengatik (hotzagatik edo beroagatik), estres hidrikoagatik eta uholde-arriskuagatik, eta horiek gizakien osasunean, ingurune naturalean eta sektore ekonomikoetan dituzten eraginak identifikatzea. Eremu horiek honako hauek dira:
  - i. Bero-boladak giza osasunerako: Barrundia, Iruraiz-Gauna, Lantarón, Ribera Baja/Erribera Beitia, Vitoria-Gasteiz, Zaldondo.
  - ii. Ibaiko uholde-arriskua: udalerriz guztiak.
  - iii. Lehorteak, jarduera ekonomikoengan: Arratzua-Ubarrundia, Vitoria-Gasteiz.
- b. Arrisku-balio oso handiak dituzten udalerriz hauen azterketa espezifiko gomendatzea:
  - i. Bero-boladak giza osasunerako: Iruraiz-Gauna, Lantarón, Ribera Baja/Erribera Beitia.
  - ii. Ibaiko uholde-arriskua: Alegria-Dulantzi, Armiñón, Arraia-Maeztu, Barrundia, Berantevilla, Elburgo/Burgelu, Erriberagoitia/Ribera Alta, Harana/Valle de Arana, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Lantarón, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Baja/Erribera Beitia, San Millán/Donemiliaga, Valdegovía/Gaubea, Zambrana.
  - iii. Vitoria Gasteiz, fenomeno biengatik.
- c. Kaltetutako eremuetan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eremua prestatzea aztertutako arriskuen aurrean, eta egokitzapen-neurriak zehaztea, arriskua minimizatzen eta lurraldea leheneratzeko gaitasuna handitzea.
- d. Lurzorua baliabide gisa balioestea eta modu jasangarrian kudeatzea, artifizializazioa eta haren osaera naturala aldatzea mugatuz, erabilerak nahastea eta espazio degradatuak berroneratzea eta berrerabiltzea erraztuz, lurzoru kutsatuak lehengoratzeko.
- e. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea, klima-aldaketara egokitzeko neurri gisa, eta ekosistemak lehengoratzeko eta naturalizatzea, lurraldearen erresilientziari eusteko.
- f. Hiri-inguruneetan espazio publikoen iragazkortasuna eta landaredia sustatzea, azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatuz uholdeak eta estres termikoa jasan ditzaketen eremuetan, eta bereziki, bero-irila efektua. Hirian klima-babeslekuak aurreikustea.
- g. Hiri-habitaten, hiriko eta hiri-inguruko berdeguneen arteko lotura bultzatzea, bai eta ibai-ekosistemen integrazioa ere, hiri-eremuetan bero-irilen ondorioak murrizteko.
- h. Uholdeen aurkako defentsa naturalak edo beharrezkoak diren azpiegiturak planifikatzea eta gauzatzea, esku-hartzeak izan ditzakeen aukerak aprobetxatuz, ingurune baliabide naturalak oreka bilatzeko.
- i. Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak klima-baldintza berrietara egokitzea.
- j. Baliabide hidrikoaren klima-aldaketaren egoeren menpeko egokitze-kudeaketa, ura babestera bideratuta dagoena etorkizunean klima-aldaketagatik arriskuan dagoen bizi-baliabidea izateagatik.

41. artikulua Osasuna

1. Hirigintza-plangintzak herritarren osasunaren aldeko irizpideak txertatuko ditu, oinezkoen mugikortasuna hiri- eta landa-azpiegitura berdearekin integratuz eta kultura-baliabideak eskuratuz, bizimodu aktiboak bultzatuz.
2. Era berean, biztanleriari eragin diezaioketen kutsadura-iturriak kontuan hartuko ditu esposizioa mugatzeko, gutxienez atalase seguruaren azpitik.

#### 42. artikulua Euskara

1. Hizkuntza-arloko helburua da politika soziolinguistikoak lurralde- eta hirigintza-antolamenduan integratzea, modu inklusiboan.
2. Proposatutako jarduera-ildoak hurrengo hauek dira:
  - a. Euskarazko toponimo edo terminoen erabilera sustatzea, aldaera normalizatuan, auzoen eta kokalekuen izendapen berrietan, ahal dela galdutako toponimia historikoa berreskuratuz.
  - b. Euskarari lotutako ondare materiagabeko ondasunei lotutako espazio eta elementu materialak kontserbatzea.
  - c. Euskara Araba Erdialdeko ondare inmaterialaren zati gisa integratzea.
  - d. Euskararen sustapena txertatzea hurbiltasuneko eguneroko espazioak sustatzeko politiketan.

#### 43. artikulua Lurralde-interrelazioa

1. Lurralde-harremanari dagokionez, beste eremu funtzional edo lurralde batzuekin muga egiten duten eremuetan lurraldea antolatzeko sor daitezkeen arazoak behar bezala konpontzea da helburua.
2. Jarduera-ildoak:
  - a. Burgosko probintzia
    - i. Trebiñuko enklabea
      1. Arabako zerbitzu publikoen prestazioa artikulatzea enklabe bizi-eremuetan.
      2. Markinezerako irisgarritasuna artikulatzea Araba Erdialdeko gainerako lekuetatik, kokagunearen bidez, eta Arabako lursailaren zatiak enklabea zeharkatuz lotzen dituzten mugikortasun-harremanen bidez.
      3. Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearen turismoa sustatzeko neurri bateratuak garatzea.
      4. Biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuak babesteko eta kudeatzeko neurriak artikulatzea.
    - ii. Miranda de Ebroko udalerrria
      1. Etorkizuneko abiadura handiko geltokiaren baterako aprobetxamendua.
      2. Sinergiak bilatzea Arasur eta Burgosko Ircioko lurzoruen arteko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-horniduran.

3. Lacorzanako aintziraren ingurunearen kudeaketa. Natura-ondarearen arloko koordinazioa eta parke fotovoltaikoaren lurralde-txertatze egokia.
- iii. Gainontzeko espazioak
    1. Ebroko erriberako lurraldearen kudeaketa koordinatzea.
    2. Obarenes mendien ingurumen-kudeaketa koordinatzea.
    3. Valderejoko Parke Naturalaren ertzetan ingurumen-kudeaketa koordinatzea.
    4. A-2622/BU-555 errepideari buruzko ekintzak koordinatzea, Valdegovia/Gaubea udalerriaren ekialdearen eta mendebaldearen artean jarraitzeko, Burgosko Valpuesta eta San Millán de San Zadornil herrietatik igarota.
  - b. Nafarroako Foru Komunitatea
    - i. Kanpezu eta Bernedoren arteko eta Kanpezu eta Arabako Errioxaren arteko bide-komunikaziorako trinkoari buruzko jarduketak antolatuko dira.
    - ii. Arabako Mendialdeko Kuadrillaren eta Lizarrako Eskualdearen arteko lankidetzabideak sustatuko dira, azken hau eratzen denean. Vasco-Navarro trenbidearen bide berdearen aukera guztiak sustatzea.
    - iii. Arabako Lautadako Kuadrillaren eta Nafarroako Sakanako Eskualdearen arteko lankidetzabideak sustatuko dira, azken hau sortzen denean, baita ingurumen-artikulazioa ere, Urbasa eta Andia mendilerroetako Parke Naturalarekin.
  - c. Arabako Errioxako Eremu Funtzionala
    - i. Toloño mendilerroaren babesa egituratzea, muga partekatu gisa.
    - ii. Urizaharraren bidezko komunikazioak artikulatzea.
  - d. Aiarako Eremu Funtzionala
    - i. Gorbeia inguruko espazioen tratamendua koordinatuko da.
  - e. Arratiako Eremu Funtzionala
    - i. Gorbeia Parke Naturalaren ingurumen babesa antolatuko da.
  - f. Debagoienako Eremu Funtzionala
    - i. Vasco Navarro trenbideko bide berdearen gaineko esku-hartzeak eta Aizkorri-Aratzeko mendi zonaldeak babestuko dira.

#### 44. artikulua Parte-hartzea

1. LPPren berrikuspen-prozesuko parte-hartze publikoa 2021ean definitutako Parte-hartze Programaren arabera ezartzen da.
2. Etorkizuneko aldaketa-prozesuak garatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira erreferentziazat:
  - a. Biztanleriari elkarrekin etorkizun hobea irudikatzeko aukeraren berri ematea.
  - b. Parte-hartze inklusiboa, berezia eta hezitzailea, herritarren kultura osatuz.
  - c. Emakumeen ikuspegia txertatzea, batez ere landa-ingurunean eta errefuxiatuen eta etorkinen kasuetan.

- d. Erabakitzeko eta parte hartzeko guneetatik kanpo dauden taldeei ahotsa ematea.
- e. Sortutako ideien kapitala aprobetxatzea.
- f. Lurralde-problematikei buruzko etengabeko pedagogia garatzea, hizkuntza ulergarri baten bidez eztabaida informatua izaten laguntzeko.

#### 45. artikulua LPPren jarraipen-memoria

1. 4.artikulan aurreikusitako lau urteko jarraipen-memoriak ebaluatuko du haren zehaztapenen betetze-maila, bai eta beste dokumentu batzuetan eta hirigintza-plangintzan duen eragina ere, eta hala badagokio, doikuntza-neurriak proposatuko ditu. Bigarren memoriatik aurrera, LPPa aldatu edo berrikusi behar den baloratuko da.
2. LPPren jarraipena egiteko informazio-sistemak LAGen 36.3 artikuluan ezarritako adierazleak jasoko ditu, eta gainera, erreferentzia-elementu gisa sartuko ditu, Vitoria-Gasteizko udalerrriaren pisua kontuan hartuta, haren biztanleria-ehunekoaren bilakaera, eremu funtzional osoarekiko, eta parametro berari dagokionez biztanle gehien dituen bigarren udalerrriarena.

#### 46. artikulua Lurralde-plangintza partzialaren eta sektorialaren koordinazioa

1. LPP honek Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko zehaztapenak biltzen ditu, eta balio estrategiko handiko lurzoruak ordeztzen ditu, babes-maila handiagoko eremuak ez badira, eta Eremu Funtzionalerako Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala- Balore Estrategiko Handia kategorian erabilerak arautzeko araubide espezifikoak, aisialdi intentsiboko eraikinei eta instalazio handiei, nekazaritza-industriei, A motako zerbitzuetako instalazio teknikoak, onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinei eta instalazio arriskutsuei dagokienez.
2. LPP honek gaiari buruzko LPSeko energia berriztagarriei buruzko zehaztapenak integratuko ditu, beharrezkoak diren ekoizpen-ahalmenei eta kokapen-irizpideei dagokienez, gogoeta-eremutik gogoeta gehigarriak alde batera utzi gabe.
3. LPP honek Jarduera Ekonomikoen LPSko udal-kategorizazioko zehaztapenak biltzen ditu, betiere 21. artikuluan ezarritakoarekin kontraesanean ez badago.
4. LPP honek Hezeguneen LPSan definitutako eremuak eta II. taldekoak (Olandinako urmaela B6A1, Arreo-Caicedo Yusoko aintzira B6A2, Bikuñako aintziratxo B7A1, Salburuako hezeguneak B9A3, Lacorzanako aintzira B10A1 eta Gesaltza Añana CA1) barne hartzen ditu, ezartzen duen zonakatzea.
5. LPP honek lurzoru urbanizaezineko azaleko uren babesa eta EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSko hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien atzerapenak biltzen ditu.
6. LPP honek Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak Gasteizko trenbidearen hiri-integrazioari (behin betiko onartua) eta Gasteiz Iruñearekin Lautadatik lotzeari (aribidean) buruzko informazio-azterlanaren alternatibak grafiatzen ditu, hori baita eremu funtzionalari eragiten dion alternatiba. Informazio-azterlan horiek trenbide-sarearen LPSn adierazitakoez bestelako trazadurekin onartzen badira, haren trazadurak onetsitakoek ordeztuko dituztela ulertuko da.

#### 47. artikulua Arabako Haranen eskualdea

1. LPPren helburu zehatzak Arabako Haranetan hurrengo hauek dira:

-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- a. Biztanleria-dinamika iraunkorra berreskuratzea denboran, bertako biztanleei hiri-egoiliarren bizi-baldintza parekoak emanez.
  - b. Energia berriztagarrien aprobetxamendua integratzea.
  - c. Eremuko kokaguneen arteko erlazioa handitzea, Vitoria-Gasteizetikiko mendekotasuna murriztuz.
  - d. Burgosko udalerrri mugakideekiko artikulazioa hobetzea.
2. Hauek dira Arabako Haranen eskualdea antolatzeke irizpideak:
- a. Azpiegitura berdea egituratzea ekosistemen zerbitzuen kudeaketaren ikuspegi integralerako tresna gisa, Valderejoko eta Obarenes-San Zadornil mendietako, Arreoko aintzirako eta Caicedo-Yusoko gune babestuen konplexutasunaren inguruan.
  - b. Nekazaritza Politika Bateratu berriaren eredura egokitutako nekazaritza-jarduera sustatzea, ekoizpenak bereizteko produktibitate potentzial handiko espazioak aprobetxatuz, hala nola Ebroko terrazak eta eremu funtzionalako baldintza onuragarrienen artean dauden beste nekazaritza-gune batzuk.
  - c. Abeltzaintza-instalazioetara sartzeko erraztasunak, existitzen diren nabeak eta etxaldeak alokatuz.
  - d. Lur publikoen kudeaketa indartzea nekazaritza-jardueraren eredu berria sustatzeko, bereziki kalitate handieneko lurretan kontzentratuz.
  - e. Eskualdean nekazaritza-sektoreari lotutako prestakuntza-ekipamenduak indartzea, gazteei atxikitzea errazteko.
  - f. Gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea, aurretik zeuden familia bakarreko etxebizitzak birgaitzea erraztuz eta alokairuko etxebizitza publikoko parke bat sortuz.
  - g. Energia, ur eta ekonomia zirkularrean autosufizientzia konektatua sustatzea. Autokontsumoa eta kudeaketa banatua bultzatuko dira, lurralde historikoaren berezko administrazio-egitura aprobetxatuz eta indartuz.
  - h. Jarduera ekonomikoari eta zerbitzuei aplikatutako sare telematikoak eta teknologia berrien pedagogia indartzea.
  - i. Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurralde-irisgarritasuna indartzea.
  - j. Naturan, kulturen eta paisaian oinarritutako landa-turismoa sustatzea, Valderejoko Parke Naturala, Añanako Gatz Haraneko Munduko Nekazaritza Ondarearen Sistema Garrantzitsua (SIPAM), Donejakue Bidea, Angostoko Harana, Espejoko igerileku naturalak, Sobrongo ingurunea, Caicedo-Yusoko aintzira edo gazteluen ibilbidea aprobetxatuz.
  - k. Miranda de Ebroko Abiadura Handiko Geltokia egingo dela aprobetxatuz, Valderejoko Parke Naturalaren eremua Gaubearekin eta San Millán de San Zadornilekin lotzea, eta Trebiñuko mendebaldearekin harremana izatea.

#### 48. artikulua Arabako Mendialdeko eskualdea

1. LPParen helburu zehatzak Arabako Mendialdeko eskualdean honako hauek dira:
  - a. Biztanleria-dinamika iraunkorra berreskuratzea denboran, biztanleei hiri-egoiliarren bizi-baldintza parekoak emanez.
  - b. Energia berriztagarrien aprobetxamendua integratzea.
  - c. Eremuko kokaguneen arteko erlazioa handitzea, Vitoria-Gasteizetikiko mendekotasuna murriztuz.
  - d. Trebiñuko eta Arabako Errioxako, Errioxako eta Nafarroako udalerrri mugakideekiko artikulazioa hobetzea, bai irisgarritasunerako bide-jarraitutasunei dagokienez, bai lurraldea kudeatzeko politikei dagokienez.
2. Hauek dira Arabako Mendialdeko eskualdea antolatzeke irizpideak:



### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- a. Azpiegitura berdea egituratzea ekosistemen zerbitzuen kudeaketaren ikuspegi integralerako tresna gisa, basoaren, larreen, nekazaritzaren eta ibai-lurraldeen arteko elkarreraginen konplexutasuna aprobetxatuz.
- b. Nekazaritza Politika Bateratu berriaren eredura egokitutako nekazaritza-jarduera sustatzea.
- c. Abeltzaintzako instalazioetara sartzeko erraztasunak, existitzen diren nabeak eta etxaldeak alokatuz.
- d. Lur publikoen kudeaketa indartzea nekazaritza-jardueraren eredu berria sustatzeko, bereziki kalitate handieneko lurretan kontzentratuz.
- e. Herri-jabetzako eta jabetza publikoko mendia eta nekazaritza-lurzorua kontuan hartzea plangintzan, lehen sektorea indartzeko.
- f. Ustategien bideragarritasunerako, jabetzaren egituraren eta laborearen eta abere-kargaren gutxieneko azaleraren erlazioaren azterketa.
- g. Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntza berrietarako lurzatiaren azaleraren eskakizunak landa-bilbearen baldintzetara egokitzea.
- h. Eskualdean nekazaritza-sektoreari lotutako prestakuntza-ekipamenduak indartzea, gazteei atxikitzea errazteko.
- i. Gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea, aurretik zeuden familia bakarreko etxebizitzak birgaituz eta alokairuko etxebizitza publikoko parke bat sortuz. Horretarako, egungo higiezin-parkeari neurri horiek aplikatzeko baldintzak eta biztanleen baldintza ekonomikoak aztertu beharko dira.
- j. Energia, ur eta ekonomia zirkularrean autosufizientzia konektatua sustatzea. Autokontsumoa eta kudeaketa banatua bultzatuko dira, lurralde historikoaren berezko administrazio-egitura aprobetxatuz eta indartuz.
- k. Jarduera ekonomikoei eta zerbitzuei aplikatutako sare telematikoak eta teknologia berrien pedagogia indartzea.
- l. Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurralde-irigarritasuna indartzea.
- m. Vasco Navarro trenbide zaharraren, Inaziotar Bidearen eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearen bide berdea bultzatzea, landa-lurraldeen arteko harremanen artikulatzaile gisa.
- n. Lizarrako eskualdearekin lankidetzatza sustatzea, Egako haranaren bidez, eta A-120/NA-743 errepidea kudeatzea, Kanpezu eta Bernedo-Urizaharra-Zanbrana ardatza lotzeko ardatz nagusi gisa.
- o. Markinez eskualdeko gainerako lurraldeekin artikulatzea, Trebiñun barrena.
- p. Urizaharra – Lagran – Bernedo ardatzaren artikulazio-potentzialaren garapena.

EGONBIDEA. Dokumentu hau Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren espelentzat egokituta jarduera ukitu duen Plan hori. Enkiztatze eta Hiri Agendako sarturaren 2024ko urteren 7ko Aginduraren bidez onartu zen berriz behin.

Para hacer constar que el presente Documento se adjunta al expediente del Plan Territorial Funcional de Eremu Funtzional de Araba Central, aprobado por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Vizcaya el día 7 de octubre de 2024.

EXPEDIENTE DE PLAN TERRITORIAL FUNCIONAL DE EREMUR FUNTZIONAL DE ARABA ZENTRAL

LURRALDE PLANATZEAREN ETA HIRI AGENDAREN 2024ko URTEREN 7ko AGINDURAREN BERRIZ BEHIN ONARTZEAREN BARRUTIA.

## Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

# I ERANSKINA. Administrazio Zentralaren txostenen arabera sartutako araudi sektoriala

## Interes orokorreko trenbide-sarea

1. Araba Erdialdeko eremuan zerbitzuan dauden Estatuaren eskumeneko trenbide-lineak honako hauek dira:
  - a. Zerbitzuan dauden Interes Orokorreko Trenbide Sareko lineak, guztiak Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin titulartasunekoak:
    - i. 01-700-Bilbao Abando Indalecio Prieto-Casetas, Bilbo-Urduña tartean elektrifikatutako bide bikoitzekoa.
    - ii. 01-100-Madrid-Chamartín-Clara Campoamor-Irún- Frantziako muga, elektrifikatutako bide bikoitzekoa.
  - b. Egikaritze-prozesuan dauden Interes Orokorreko Trenbide Sareko lineak:
    - i. Burgos – Gasteiz abiadura handiko linearen proiektuaren informazio-azterlana, 2021eko abenduaren 29an behin betiko onartua (2022ko urtarrilaren 8ko BOEn argitaratua).
    - ii. "Trenbidea Vitoria-Gasteizen integratzea" proiektuaren informazio-azterlana, 2012ko otsailaren 29an behin betiko onartua (2012ko martxoaren 17ko BOEn argitaratua).
    - iii. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren proiektuari buruzko informazio-azterlana, 2000ko azaroaren 24an behin betiko onartua (2001eko otsailaren 5eko BOEn argitaratua).
  - c. Beste jarduera batzuk:
    - i. Trenbidea Gasteizen integratzeari buruzko informazio-azterlana, 2019ko uztailaren 3an jendaurrean jarria (2019ko uztailaren 5eko BOEn argitaratua) eta Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Estatu Idazkaritzaren 2024ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez behin-netikoz onartua (2024ko ekainaren 21eko BOE, 150. zk.).
    - ii. Kantauri-Mediterraneoko korridorearen informazio-azterlana. Tarteak: Euskal Y-a, 2018ko urtarrilaren 11n jendaurrean jarria (2018ko urtarrilaren 16ko BOEn argitaratua). Azterlan horrek ez zuen ingurumen-ebaluazioaren prozedura izapidetu.
2. Araba Erdialdeko LPPa garatzen duten hirigintza-antolamenduko tresna orokorreko kalifikatu egongo dituzte Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten tren-azpiegiturek okupatzen dituzten lursailak, bai eta behin betiko onartutako informazio-azterlanetan oinarrituta Estatuaren titulartasuneko trenbide-sistema orokor edo baliokidetzat kalifikatuko dituztenak ere.
3. Trenbide Plangintzaren Zuzendariordetza Nagusiak nahitaezko txosten loteslea egin behar du, LPPa garatzeko hirigintza-plangintzako tresnei edo LPParekin duten loturaren ondoriozko berrikuspenei eta aldaketek buruz bere eskumeneko gaitan, hasierako onarpenera eman aurretik, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 7.2 artikulua aplikatuz.
4. Hirigintza-antolamenduko tresnek jabari publikoko eremu bat, babes-eremu bat eta eraikuntza-muga bat ezarri behar dituzte Estatuaren eskumeneko trenbide-lineetan, eta eremu horietan sartutako lurren jabetzaren mugak zehaztu behar dituzte, bai testuetan, bai dokumentazio grafikoan. Eremu horiek Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen 12. artikulutik 18.era bitartekoetan daude zehaztuta.
5. Lurralde- edo hirigintza-antolamenduaren arloan eskumena duen administrazioak eten egongo ditu, dagokionaren arabera, sailkapen eta kalifikazio berriak eta dagoeneko onartutakoen ondorioak, bai eta baimenak eta lizentziak ematea ere, jendaurrean jarri

### -BEHIN-BEHINEKO ONARPENA-

- beharreko informazio-azterlanek eragindako eremuetan, Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen 7.2 artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan.
6. Errepideak edo beste komunikazio-bide batzuk trenbideekin gurutzatzen direnean horietako edozein ezartzeagatik edo aldatzeagatik, gurutzaketa horiek beste maila batean egin beharko dira, Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen 8. artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan.
  7. Jabari publikoko eremuan eta babes-eremuan egiten diren obren helburua paisaiak edo eraikuntzak babestea edo trenbide-lineetatik igarotzeak eragiten duen zarata mugatzea bada, obra horiek sustatzaileek ordainduko dituzte, tren-azpiegituren administratzaileak (ADIF) baimena eman ondoren eta indarrean dagoen legeria sektorialak ahalbidetzen duenean, Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.



## Abiazio zibila

### 1. Eremu funtzionalako lurraldeari honako xedapen hauek aplikatuko zaizkio:

#### a. Araudi sektorial orokorra

- i. Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/60 Legea (uztailaren 23ko BOE, 176 zk.), Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 29ko 55/99 Legeak aldatua (abenduaren 30eko BOE, 312 zk.).
- ii. 21/2003 Legea, uztailaren 7koa, Aire Segurtasunari buruzkoa (uztailaren 8ko BOE, 162. zk.).
- iii. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen hirugarren xedapen gehigarria eta hirugarren xedapen iragankorra (azaroaren 18ko BOE, 276. zk.).
- iv. Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikulua (abenduaren 31ko BOE, 315. zk.).
- v. 369/2023 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, aireko nabigazioa babesteko zortasun aeronautikoak arautzen dituen eta interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu-eremuaren antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzen duena, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betez (BOE, 131. zk., ekainaren 2koa).
- vi. 1031/2020 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, Gasteizko Aireportuko zor aeronautikoak aldatzen dituena.
- vii. 733/2015 Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Logroño-Agoncillo aireportuko zortasun aeronautikoak ezartzen dituena.
